

uk

107. zenbakia / 2006 urriak 15



berbalaguna*

EGIZU GETXO EUSKALDUN



izena emateko epea azaroaren 7ra arte zabalik!

Berbalagun Proiektuak
8 urte daramatza Getxon eta urtero euskaldun askok hartzen dugu parte sortzen diren taldeetan.

Euskalduna bazara asko
egin dezakezu ikasten ari direnei euskara kalean erabiltzen lagunduz, eta gainera ederto pasako duzu.

Ikasten ari bazara hauxe duzu tokirik onena euskara erabiltzeko, Getxoko beste euskaldunak ezagutzeko eta euskaraz bizitzeko. ”

Astean ordubetez elkartzen gara euskaraz berba egiteko, poteoan gaudela, mendian, paletan, asteburuetako irteeretan, ofarrietan...
Den-dena euskaraz.
Animatu eta izena eman!

egizu!

Karitatza. I-10.bulegoa GETXO
605 73 99 16 | 94 491 43 57
egizugetxo@yahoo.com
www.blogari.net/egizu



YOGA ikastaroa euskaraz ALGORTAN



NOIZ astelehen & eguaztenetan **19:30-21:00**
NON San Nikolas ikastolan (Algorta)
PREZIOA 30 € (25 € berbalagunek zein bazkideek)
DEITU 605 739 916 | 94 491 43 57


UK galeria > Asier Mentxaka



Gehienok ezagutuko duzue Asier Mentxakaren (Getxo, 1972) lana; izan ere, UK aldizkari honetako argazkilaria da bera. Gure aldizkariaren orrialdeetan argitaratzen diren irudi gehienak berak egindakoak izaten dira. Gazte-gaztea zela, artean 16 urte baino ez zituela, *Egin* egunkarian hasi zen beharrea eta harrezkero fotografiari loturik ibili da beti Asier.

Makina bat sari ere eskuratu ditu, besteak beste: Bilboko Foto-Gazte, Ihebeko ingurumen lehiaketan 2. sailkatu zen (2002), Gorlizkoa irabazi zuen (2002), Leioakoa ere bai (2002), etab. Bestetik, bere azken erakusketa eskualdeko herrietan erakusten dabil aurtan. Egunotan, zehazki, Sopolako udaletxean dago.

Esku artean darabilzun zenbaki honen azalera Leioako sanjuanetan ateratako argazkia utzi digu.



«Nola bizi, hala hil» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Maialen Errotabehere, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areta Erromotik.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Maria Antxia.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopolana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Gerra jolasak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Ilargirako hegazkina, Alfredo Aldai.
30. BERBETAN. Unai Basurko, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Uribe Kostako korridorea, Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Euskal uzta Zinemaldian.
43. MUSIKA. Rocka eta poesia Leioan. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Karlos Linazasororen azken lana. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo eta Sopolako mendigoizaleak.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Iturriaga musika laukotea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Basagoti 57 tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algorta futbol taldea, 1944-45.
54. AITORMENAK. Maider Egues.



30 Unai Basurko



11 Maria Antxia

Berbetan

Urriaren 22an Getxotik munduari bira egitera abiatuko da *Pakea* bere bela-ontzian. Dena ondo badoa maiatza aldera itzuliko da herrira.



34 Uribe Kostako korridorea



24 Gerra jolasak Ereagan



18 Mari Mar Corchero



54 Maider Egues

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bitor Egunroa, Xabier Sillbau, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



gugeu

Egunkaria, hiru urte

Euskaldunok -eta bereizi egin beharko genituzke “euskaldun” (euskara+dun) eta “euskal herritar” berbak- geure hizkuntzaz normaltasun osoz bizitzeko aukerarik ez daukagu, non eta Euskal Herrian (euskara+herrian). Egunerokotasunean euskaraz bizitzeko ahalegin ikaragarria egin behar izaten dugu, kasik euskara plan estrategiko bat egin behar dugu: ogitan ez dakit nora, beste erosketak hango zeran, banketxean leihatila horretan, poteoa hantxe... baina ezinezkoa zaigu dena euskaraz egitea eta egunero jo behar izaten dugu gaztelaniara.

Gure eguneroko borroka horretan bultzada itzela izan zen Euskaldunon Egunkaria eta planaren ardatzetako bat zen. Baina batzuek, aurrera egiten genuela ikusi eta indar nahikoa bereganatu zutenean, eta euskal kutsua zeukan ororen aurkako strategiaren barruan, Egunkaria itxi zuten, eta zelan itxi ere! Miaketak, atxiloketak, torturak...

Herriak erantzun egin zuen eta hiru urte pasa direnean herri erantzunaren oihartzunak auziarekin behin betiko amaitzea eskatzen du. Hala ere, ez dago argi azkenean zer gertatuko den, baina nahiko argi dago batzuek horiek zer egin zuten. Zoritxarrez edo zorionez -segun norentzat-, euskaldunok, baita euskal herritarrok ere, oso burugogorak gara eta geure hizkuntzaz normaltasunez bizitzeko borrokan jarraitu egin dugu. 4

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

“Cateto” en vascuence

Hamaikak entzuteko (eta ikusteko) jaiok gara! Atzo bazkaltzen ari nintzela Nafarroako Presidentea den Miguel Sanz telebistaz entzun (eta ikusi) nuen. Hau nazka! Eztarrian sabelera bidean nuen lasaña zatia, lehen esaten genuen moduan, “bide zaharretik” joan zitzaidan. Profesional ona izateko “ez da beharrezkoa hipotenusa edo catetos (pluralean, batek daki zergatik) vascuencean zelan esaten den jakin behar”. Nire belarriek entzundako baieztapen honen inguruan ez dut ezer aipatuko, uste baitut batere ganorarik ez duen baten ganorarik gabeko berbak direla. Nire begiek ikusitakoaz, ordea, gizaki batzuek gorputzaren bidez gorrotoa adierazteko duten gaitasunaren inguruko tesi doktorala egin litekeela uste dut. Lastima horretarako leihatila motz xamarra geratzen zaidala. Sanz jauna, “cateto” euskaraz zakar, baldar edo dorpe esaten da. 4



[irudia]

MAIALEN ERROTABEHERE (ALGORTA, 2008KO URRIAREN 4A)

Iparra galdu al dugu? / Askotan diogu Euskal Herria zazpi probintziaz osatuta dagoela, baina askotan iparraldeko hiru lurraldeak ahazten ditugu. Oraindik ugariak dira elkarrengandik ezagutzen ez ditugun gauzak. Horri aurre egiteko asmoz, eta iparreko haizea gure artera ekartzeko, hainbat ekintza antolatu zituzten Getxon *Iparra galdu gabe* izenburupean. Gure artean egon zen, besteak beste, Maialen Errotabehere kantaria, Iparraldeko doinuak bere ahots indartsuaz zabaltzen. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

itsasoa^{ren} inguruan




Argazkia: Juan Gómez

Alfredo Aldai / Jon Bernardez / Aitor Galbarriartu / Juan Gómez / Juan Luis Markaida

Satistegi kafea / iraila-urria 2006

Javier Martínez Llona / Mikel Martínez / Oskar Martínez / Asier Mentxaka

URIBEKOSTAKO ARGAZKILARIEN KOLEKTIBOA



[lehen]

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / AREETA ERROMOTIK

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > it's raining men



Ereaga hondartza, 2006ko irailaren 27a

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

—Amatxo zer da han ikusten den gauzatxo hori, begira!
Hegazkin bat da? Edo Superman?
—Imanol, mesedez, tira, hori soldadu bat baino ez da, hona hurbiltzen ari da...
Lurrazalean dauden guztiak berez gutxi ez balira, azken aldian ustekabeen zerutik erortzen dira.

2

Pankarta batek esaten die ez gastatzeko indarrik, Euskal Herrian ondo gaudela euskaldun eta bakarrik. Taktikek eta estrategiek ez dute falta okerrik: maniobratze kontu horrekin ez al dabilta alperrik zuzen ibiltzen denak ez baitu maniobratu beharrik!

3

Armada beti izan da eltze askotako burruntzali baina eltzetik kanpo jaustean nor ez da inoiz kiskali? Sua inoizko beroen dago, orain ezin da itzali... Ezin al dugu eltzea tapa sendo batekin estali? Grabitateak ezin al ditu espaziora bidali?

* Doinua: *Bogart & Bilintx*

ekitaldia > Getxon euskara irakasle izandakoen topaketa



Goian, ezkerretik eskuinera:
Joxi Arakama, Mikel Lauzirika, Andoni Seijo eta Laura Mintegi.
Alboan, gerraurreko euskara irakasleen oinordekoak. Ezkerrean, entzuleak adi eta irakasleak esker ona adieratzen zien agiria jasotzen, hurrenez hurren.

Getxoko Euskara Zerbitzuak, Egizuren eta herriko euskaltegien laguntzaz, herrian euskara irakasteko mugimenduan parte hartu zuten irakasle guztiei esker ona adierazteko eta euren lana goraiatzeko topaketa antolatu zuen irailaren 27an Kultur Etxean. Hara bildu ziren ehunen bat lagunuen aurrean euskara irakasle izandako hiru lagunuen oroitzapen eta gogoetekin hasi zen ekitaldia. Mikel Lauzirika, Andoni Seijo eta Laura Mintegi izan ziren hizlariak. Oroitzapen gazi-goxoak bota zituzten, izan ere euskaltegi publikoen sorreran, AEKren kaltetan, erakunde publikoen jokaera salatu zuten bai Andoni Seijok bai Laura Mintegik. Bestetik, aipatu behar da arrazoi horiek argudiatuz irakasle batzuk ez zirela ekitaldira joan. Ekitaldiak 36ko gerra aurrean Getxon Escuela Vasca zeritzon euskara irakasle izandako lagunuen oinordekoei lore sorta banaketarekin jarraitu zuen. Horretarako, Eloisa Ageda Elorriaga, Ageda Elorriagaren oinordekoak, eta Rosario eta Miren Salazar, Luciana Salazarrenak, egon ziren han. Joseba Santxo eta Josu Landetaren (irakasle izandakoak ere bai) bertsoek borobildu zuten ekitaldia. Ondoren, hara bildu ziren irakasle guztiei Udalaren esker ona adierazten duen agiria banatu zitzaizkien eta gero giro lasaiagoan luntxa egin zen. Harizko laukote batek musika gozoa jotzen zuen bitartean, urte asko elkar ikusi barik egondako irakasle ohi askoren bertopaketa hunkigarrien lekuko izan ginen. ^m



UK-k Egunkariaren itxiera salatzeko deitutako agerraldia, Algorta 2003

auzia > dagoeneko hiru urte Egunkaria barik

Jada hiru urte pasa dira euskaldunon eskubideak berriro ere zapalduak izan zirenetik. Jada hiru urte, unibertsa den adierazpen askatasunaren printzipioak eraso larria jasan zuenetik. Jada hiru urte kultura eta hizkuntza bat mespretxatuak izan zirenetik. Eta laugarren urteurrena “ospatzeko” zoritxarra bizitzeko arriskuan gaude oraindik, zenbait agintarik euren jarrera aldatzen ez duten bitartean. EHUko Ramon Zallo irakasleak esan bezala, “Euskara eta euskal kulturarekin lotura zuen oro kriminalizatu zen garaia” dagokio Euskaldunon Egunkariaren itxiera, “iraganari, alegia”. Garai txar horiei aurre egin eta piz ditzagun esperantza berriak. ^m

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehen goaiak...



...itsasa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

ingurunea > bidegorria eskatu dute Aixerrota Institutuko ikasleek



1992an Rio de Janeiron ingurumenaren egoerari buruz onartutako Agenda 21a lantzen dute urtero Getxoko Aixerrota Institutuan; liburuxka horretan datozen puntuetatik bat aukeratu eta ikasturtean zehar horren inguruko ekintzak burutzen dituzte. Hain zuzen ere, mugikortasun jasagarria izan zen iaz landutako gaia eta, besteak beste, eskolara txirindulaz joateko bidegorria jar zezan eskatu zioten ikasleek Udalarari. Orduan, proposamen bat aurkezteko eskatu zieten Udaleko ordezkariak eta halaxe egin dute aurtengo ekainean. Bi izan dira gazteek prestatutako ibilbide posibleak: bata, herriaren erdialdetik joango litzateke eta, bestea, Fadura eta Maidaganetik. Gainera, Kotxe Gabeko Eguna aprobetxatuz, Udaletxeraino bizikletaz joan ziren eskaria indartzeko asmoz. m

Ikasleak bizikletaz joan ziren Udaletxera eskaria egitera

Itzubaltzeta > urte bi dira Erromoko gaztetxea martxan jarri zutela



Bigarren urtemuga ospatzeko hainbat ekintza antolatu zituzten irailaren 29tik urriaren 8ra bitartean Itzubaltzetakoek. “Bi urtez zirikatzen... eta urte askotarako” lelopean kultur eskaintza oparota eskaini zieten bertara hurbildu ziren guztiei: bideo emanaldiak, kontzertuak, lehiaketak, herri bazkaria, olinpiadak, azoka, mahai inguruak, umeentzako ikuskizunak... Getxon bigarren urteurrena ospatuko duen gazteen topagune okupatu bakararra da Erromoko gaztetxea; izan ere, 2004ko irailaren 27an Itzubaltzetaren eraikin zaharra hustu eta egun batzuetara, Errekagane kaleko aroztégian biltoki berria eraiki zuten gazteek. Orduetik hona, makina bat ekintza antolatu dituzte bertan: tailerrak, hitzaldiak, kontzertuak, auzolanak... m

Bide luzea aurreikusten diote gazteek Itzubaltzetari



Maria Antxia > San Nikolaseko artxibategiko arduraduna

Bilbotarra berez, baina Getxo bertoko askok baino hobeto ezagutzen duena. 24 urte daramatza Getxoko liburutegietan lanean Maria Antxiak. Adina galdetzean “ez eskerririk asko” erantzun zigun irribarretsu, “24 urte daramatzat artxiboan lanean, zuok kalkulatu”. Argazki eta liburu artean gustura dabil, berak “usotegia” deitzen duen ganbaratxo horretan. Jada sei urte pasa dira argazki artxiboa Urguletik San Nikolasera ekarri zutela eta hau digitalizatze prozesuan dago. Argazki hauek denboran kokatzen ahalegintzen da Maria, baina askotan ezinezkoa egiten zaio: “Batzuetan asmatu ere egin behar ditugu; beste batzuetan asmatzea ere ezinezkoa egiten zaigu”. Azken hilean burubelarri ibili da lanean irailan Geltoki plazan izan dugun “Fotorretro Getxo 2006” erakusketa prestatzen. Udaletxeko artxiboko eta Daniel Zubimendiren argazkiak bildu dituen erakusketa honek oso harrera ona izan du herritarren artean, “argazki enakusketek harrena ona izaten dute beti”. 53 pertsonak 200 kopiaetik gora eskatu dituzte dagoeneko. Bere aragazki kuttunei buruz galdetzean pentsakor lotzen da Maria: “Jeneralean Bizkaiko Zubia izaten da izarra. Ez dakit, niri denak gustatzen zaizkit. Behar bada 20 eta 30eko hamarkadetakoak dira bitxienak: jendea hondartzan, antzinako baimujantzi horiekin... barregarriak gertatzen dira”. Asko estimatzen du bere lana gure artxibozainak, baina bere lankidea den Izaskunen laguntzarik gabe ezinezkoa izango zela aitortu digu: “Bera da nire inprimatzailerik ofiziala”. Lanean utziz agurtu dugu Maria, abenduan Areetako argazki erakustaldia daukagu eta lana pilatu egin zaie. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Tasen eta zergen gorabeherak

Behin-behinean onartu dute **datorren urterako** udal tasa, zerga eta prezio publikoak **%4 igotzeko** proposamena **EAJ, EA eta EB-Berdeak** alderdien aldeko botoez

Pasa den hileko osoko bilkuran onartu zuten, behin-behinean, datorren urteko udal tasen eta zergen gaineko hazkundea. Hala, Tokiko Gobernu osatzen duten alderdien aldeko botoez, hau da, **EAJ, EA eta EB-Berdeak** baiezko bozkaz, 2007ko tasak eta zergak %4 baino gutxiago igotzea adostu zuten.

Datorren urterako udal tasak eta zergak Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) aurreikusitako igoeraren arabera, %4 baino apur bat gutxiago igotzea onartu du behin-behinean Tokiko Gobernu taldeak. Izan ere, EAJ, EA eta EB-Berdak-en aldeko botoez egin zuen aurrera tasen igoeraren proposamenak; oster, PP eta PSE-EE alderdiek kontra bozkatu zuten. Ogasun saileko buru Jose Manuel Etxebarriak azaldu zuenez, batez besteko %3,8an doitu dute igoera, aurreikusten den KPIaren igoerara (%4) egokitu ondoren. Dena dela, Etxebarriak jakinarazi duenez, tasa batzuk aurtengo zenbatekoan mantenduko dira eta beste batzuk jaitsi egingo dira; berbarako, eraikitze eta lanetako zergak, hirigintza zerbitzuen eta lan baimenen gaineko tarifak bere horretan utziko dituzte. Horrez gainera, TAOren tarifak ere mantenduko dira eta zenbait alorretan zerbitzua ere, hau da, adibidez isunak borondatzeko epean ordaintzen badira %50ko beherapena izaten jarraituko dute. Fadura eta Gobelako kiroldegiek familia ugariatzat eskaintzen dituzten hobariak ere mantenduko dira, hala nola, Musika Eskolakoak ere. Horren albotik, Ereagako igogailuko txartelaren prezioa ere ez da aldatuko. Ogasun saileko arduradunak gaineratu



TAOren tarifek berean segituko dute

duenez, *“tasak eta zergak %3,8 gaurkotzearen arrazoiak Udalaren abalmen biltzailea mantentzea da, baita prezio fiskala banatzeko ere; kolektibo behartsuenen alde eginez, besteak beste, diru-sarrerak gutxi edo errenta maila baxua daukaten familia ugariak”.*

«Getxo Bizia plataformak galdapenen bidea jorratuko du bere iritzia aurkezteko»

Ostera, oposizio taldeek proposamenaren aurka bozkatu zuten. *“Tasa eta zergak %10 jaistea eta zabor tasaren %86ko igoera zein igerilekuetara sartzeko ordaindu beharreko euroa kentzea”* eskatu zuen, besteak beste, PP alderdiak. PPko bozeramaile Eduardo Andradek udal gobernari *“kudeaketa kaskarna”* egotziz honela argudiatu zuen euren ezezkoa: *“2005eko aurrekontuetatik 19 milioi euro sobera eta*

6.300.000 euro kobratu barik badaude, diru horregaz zer egin ez badakizue hobe herritarren poltsikoan egotea, ezta?” Bestalde, PSE-EEk estolderia, zaborra eta nagusien egoitza zein Gizarte Zerbitzuen gaineko tasak *“izoztea”* eta beste guztiak %3 bakarrik igotzea proposatu zuen. Horrez gain, *“gizartearentzat onura bilatu baino, dirua bildu guri izatea”* egotzi zion Luis Almansak Tokiko Udal Gobernuari.

Getxo Bizia plataforma

Herri plataformak azaldu zuenez, gainontzeko udal taldeei informazioa lehenago helduarazi zitezkeen, euren ez dute txostena behar bezala aztertze eta emendakinak egiteko asti nahikorik eduki. *“Horregatik, eta Udal Batzuan beste aukerarik ez dagoela, galdapenen bidea jorratuko dugu gure iritzia eta proposamenak aurkezteko”*, jakinarazi dute Getxo Biziakoek. m

Itsasoruntz ekimena Euskal presoen alde bustitzeko deia



Urriaren 21ean, goizeko 11tan, Portu Zaharrean ipini dute hitzordua

Itsasoruntz ekimena antolatu du hilaren 21erako “Uribekostako herritar talde anitz batek”. Antolatzaileen ahotan ekimena prestatzeko arrazoiak hurrengoak dira: *“Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren konponbidean abian den prozesuari gure ekarpen txikia eskaintzeko sortu dugu, egitua politikoetatik kanpo, herritarren borondate soila eta egoeraren larritasuna oinarri dituen; prozesuaren parte sentitzen garen heinean, gure ekimenak euskal presoen egoerari arreta berezia jarri gura dio”*. Ekitaldia festa giroan pasatzeko asmoa azaldu dute eta jardura nagusia hauxe izango da: *“Itsasoruntz ekimena antolatzeko baliabide ekonomikoak batzen lagun dezatela. m*

asmoz”. Ekitaldia, esan legez, urriaren 21ean egingo da (11:00) Portu Zaharrean, Portu Zaharra eta Arriuzeko kaia herritarrek lotzeko denak uretan daudela. Horrez gainera, dantzak, prentsurrekoak, luntxa eta bertso saioa ere egingo direla aurreratu dute.

Osterantzean, antolatzaileek hiru eskaera egin gura dizkiete herritarrei: prestatu duten aldarrikapen testuari atxikitzea, ekitaldian parte hartze zuzena eduki eta ekimena antolatzeko baliabide ekonomikoak batzen lagun dezatela. m

Harremanetarako: itsasoruntz@hotmail.com
Diru laguntzak emateko:
2095 0022 00 9107848794 BBK

LAPURRETA BIZARRA LEPOAN ETA UKBERRI-N

Joan den irailaren 29an, lapurreta egin zuten Bizarra Lepoan elkarteak eta UKberrik Aldai Patronatuak erakinean dituzten egoitzetan. UKberriko bulegotik eroan zituzten gauza gehienak: ordenagailua, disko gogorra, argazki makina bi, argazki artxiboa, USB konektoreak eta Wi-fi antena. Kaltetuek jakinarazi dutenez, areto nagusiko DVD irakurgailua, musika ekipoa eta beste gailu garestiak ez zituzten ezta ikutu ere egin eta Bizarra Lepoandik argazki kamara bat bakarrik eroan zuten, ordenagailu berriak dituzten arren. Hori dela-eta, susmagarritzat jo dute gertatutakoa eta, dokumentuak miatu duteneko arrastoak daudela ikusita, ez dute inolako hipotesirik bazterten.

Lapurreta salatzeo prentsaurrea



TAO KREDITUZKO TXARTELAZ

Urtariletik aurrera TAO kredituzko txartelaz eta isunak parkimetroan bertan ordaindu ahal izango dira. Gainera, TAOren ordutegia ordurdi atzeratuko da: 9:30tik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara (zapatuetan goizez baino ez). TAO orain arte egon den kaleetan egongo da indarrean, gehi Bizkaiko Zubiaren ondoan dauden bi etxaldeetan (Eduardi Coste kalean).

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

Ikasgehi

Eskolaz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko IKASGEHI hitzarmena abian da

Getxoko Euskara Zerbitzuak akademietan euskaraz ikasteko aukerari buruz informatzeko eskuorria kaleratu berri du, "Getxon akademiak ere euskaraz" titulupean. Akademieta euskarazko zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen eta zentroen arteko zubia izatea du helburu. Hiru multzotan banatuko dituzte akademiak: alde batetik, zerbitzua euskaraz eskaintzen dutenak; bestetik, taldea osatuz gero, zerbitzua euskaraz eskainiko luketenak; eta azkenik, oraingoz prestatuta ez dauden akademiak. Imanol Landa zinegotziaren hitzetan "Getxon euskaraz bizi nahi duenak hori egin ahal izatea den gure helburuan beste urrats bat ematea da, horretarako gizartearen gune estrategikoetan bere erabilera hedatuz". Udaleko euskara zerbitzuak, iaz, elizetan, haurtzaindegietan eta akademietan egindako azterketan oinarrituta dago argitaratu berri den eskuorria. Getxoko 0 eta 18 urte bitarteko 7.000 gaztetik gora parte hartzen dute hauek antolatutako ekintzetan, euskararen normalizazioan paper garrantzitsua betetzen dutelarik. Udalerriko beste zenbait sektoretan ere, antzeko lanak burutzen dabilta. m

IKASGEHIren kartela



Felipe Iñarra > Elhuyarren babespeko Aholkularitzako langilea

"Lana eta euskara uztartzeko hezurdura egiteko bidea orain 15 urte hasi zuen Elhuyarrek"



Argazkian, Felipe Iñarra

Hamar urte dira Bergara jaioterria utzi eta Felipe Iñarra gure eskualdean bizi dela, azkenengo 8 urteak Algortan, hain zuzen. Irakasle jardun zuen urte askoan, ostean testu-liburuak egiten ibili zen eta pasa den urtetik Elhuyar Fundazioaren babespeko Aholkularitza enpresan dihardu.

—Zertan egiten duzue behar?

—Elhuyarren barruan alor asko eta haien artean nahiko desberdinak lantzen dira. Elhuyar Fundazioak 3 alor nagusi dauzka: zientziaren komunikazioa (aldizkaria, Teknopolis saioa, zientzia.net, Norteko Ferrokarrila...); hizkuntza-zerbitzua (hiztegiak, itzulpenak...) eta edizioak (testu-liburuak, CD-Romak...). Bestalde, 2 enpresa gaude Fundazioaren babespean: Eleka (zuzentzaile ortografikoak, itzulpen memoriak...) eta Elhuyar Aholkularitza (enpresa, administrazio eta erakundeetan euskara-planak diseinatzeko eta garatzeko aholkularitza). Nik Aholkularitzako 25 laguneko taldean dihardut.

—Ospakizun garaian zabiltzate, zein da bada ospakizunaren arrazoiak?

—80ko hamarkadan Elhuyarrek hainbat erakunde eta enpresatan ziharduen euskara tekniko edo lanekoa irakasten, hor ernatu zen kezkatxo batek gero eta indar handiagoa hartu zuen. Gizartearen hainbat arlotan (komunikabide, administrazio, hezkuntza...) euskarak urrats adierazgarriak eginak zituen; ez, ordea, lan-munduan. 90en hasieran Jaurilaritzarekin harremanetan jarri eta 5 urte iraun zuen hitzarmena sinatu zen lan-munduan zein urrats egin zitezkeen aztertze. Horrela sortu ziren lehen plan pilotuak, horien artean Antzuolako ELAY enpresarena. Duela 15 urte euskaraz lan egin nahi zuela erabaki eta Elhuyarrek eta Jaurilaritzarekin batera sinatutako akordio baten bidez, gaur egun lana eta euskara uztartzeko eginda dagoen apurraren oinarria, hezurdura, egiteko bidea zabaldu zuen. Gaur egun badira 150 enpresa eta erakundetik gora urrats hori eman dutenak. 15 urteren buruan

«Getxon euskararen erabilera plan biren diseinuak egiten dituzte»

ere horretan dihardugu, ospatzeko une egoia eta nahikoa arrazoi badirela deritzogu. Alde batetik, egindako ekitaldiarekin ahalegin horretan buru-belarri diharduten enpresak omentzeko tartea hartu nahi izan dugu. Bestetik, Elhuyarrek zeregin horretan daukan eskarmentua eta aitzindaritza aldarrikatu, eta, zergatik ez, aurrera begirako ildoak aztertu eta ahal den neurrian argitu nahi izan ditugu.

—Getxoko eta Erandioko euskara planetan ere ibili zarete ezta?

—Bai, Getxon Udal barruko erabilera-planaren diseinua (2003-2004) eta haur eta gazte-txoen eskolaz kanpoko jardueretan euskara bultzatzeko egitasmoaren diseinua (2005) egin genituen. Erandion merkatariekin eta ostalariekin lanean dihardugu. Sektorean lan egiteko plangintza egin dugu; orain, bigarren fasean gaude, plangintza errealitatera eramaten, asmoak egia bihurtzen. m

Zine denboraldia

Hil amaieran ekingo dio berriro

Kultur Etxeak 2006/07ko zine eskaintzari



Getxo Antzokian eskainiko dira film guztiak

Udagoienari harrera egin ostean, oraindik Donostiako Zinemaldiaren oihartzunak buruan fresko dauzkagula, zelanbait eguraldiak edota, modu batera ala bestera, belarriak bete dizkiguten kritikek bultzatuta... zinemara joateko gogoak berpizten zaizkigu urte garai honetan. Hala, Getxoko Kultur Etxeak ere dagoeneko prestatu du denboraldi berriko ikuskizunen saila. Cinema Paradiso zikloak emango dio hasiera zine eskaintzari. Dagoeneko ezaguna denez, ziklo hori barikuetan izaten da gaueko 10:00etan Getxo Antzokian. Azpitoludun jatorrizko bertsoian eskaintzen dituzte filmak eta lanen gaineko eztabaidak edo forumak antolatzen dituzte. Sarrerak 2,80 euroko prezioa du eta emango dituzten lehenengo lanak, hilaren

27an, hurrenez hurren, hauek dira: *El Gran Zambini* film laburra (Igor Legarreta eta Emilio Perez) eta *Plan Oculto* (Spike Lee). Domekako Haur Zine eskaintzak hartuko dio lekukoa Cinema Paradisori, hilaren 29an. Ohi legez, domekero izango dira umeentzako zine emaldiak, batzuetan euskaraz eta besteetan gazte-leraz. Hiru saio eskaintzen dira Getxo Antzokian 12:00, 17:00 eta 19:00etan eta sarrerak 2 euro balio du. Sail honetako lehenengo pelikula *Pintas del Caribe II* izango da. Azkenik, Zineklubaren eskaintzaz gozatzeko azaroaren 8ra arte itxaron beharko dugu. Zinekluba eguaztetenan izaten da 20:00etan Getxo Antzokian eta lehenengo filma *Syriana* izango da (sarrerak: 2,80 euro). m

BIGARREN ESKUKO LIBURUEN SALMENTAKO 6.000 EUROAK SAHARAUIENTZAT

Irail amaieran Algortako Geltoki plazan paratu zuten Bigarren Eskuko Liburuen azokan 9.500 bat liburu saldu ziren, azaldu dutenez, azokarako prestatutako zenbatekoaren %90 gutxi gorabehera. Liburuen prezioa euro bat eta 3 euro bitartekoa zen eta entziklopediak, literatur liburuak, testu-liburuak, zuzenbideari buruzkoak eta abar luzea aurki zitezkeen erakusmahaietan. Antolatzaileek prentsari adierazi diotenez, 6.000 euro inguru batu dituzte eta Tindoufeko errefuxiatu kanpamenduetako Lehenengo Hezkuntzako bi eskola birgaitzeko bideratuko dituzte.

IV. BIHOTZA GAZTE BERTSO SAIOA HILAREN 20AN

Urriko azken aurreko barikurako antolatu dute ALBEkoek (Algortako Bertsolari Eskola) Bihotza Gazte bertsolari beteranoen bertso-festa. Anjel Larrañagak eta Gregorio Larrañaga *Mañukortak* jardungo dute bat-bateko kantuan Algorta Piper's Irish Pub tabernan arratsaldeko 8:00etatik aurrera. Bertsolariakaz batera Kupela taldeko soinu-pandero jotzaileek alaituko dute giroa, beraz bertsozaleak badaki noiz eta non daukan zita, eta ziur gaude bertso-festan umore finak eta algarek ere ez dutela huts egingo.

MIKEL MARTINEZEN "GETXOKO JAIK 2005" ERAKUSKETA

Mikel Martinez argazkilaria algortarraren "Getxoko Jaiak 2005. Photo Album" erakusketa ikusgai egongo da hilaren 24ra arte Erromoko kultur etxean. Iazko Getxoko auzo guztietako jaietako argazkiak egin zituen Martinezek eta Unai Elorriagaren testuakaz batera liburu batean bildu ditu.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Ibai Guirles > europar boluntarioa

“Euskal erakundeek ez dute gazteen artean Europar Boluntariotzaren berri ematen”

20 urte besterik ez duen arren, Ibai Guirles leioaztarra erosotasunez mugitzen da nazioarteko harremanen munduan. Horixe da hain zuzen ere etorkizunean uni-bertsitatean ikasi nahiko lukeena. Bitartean, aldiz, Europar Boluntariotzaren Zerbitzua gure artean hedatzeko kanpainia diseinatu du eta gura duenari horren inguruko azalpenak emango dizkio urriaren 27ra arte, Kultur Leioan.

—Zer da Europar Boluntariotzaren Zerbitzua?

—Europar Batzordeak finantzatzen duen programa da eta gizarte arlo ezberdinetan sei hilabetez edo urtebetez behar egitea ahalbidetzen du. 18 eta 25 urte bitarteko jendeari zuzendutako proiektua da eta, lan egiteaz gain, gazteek kultura, bizimodu eta hizkuntza berriak ezagutzen dituzte. Batzordeak, berriz, boluntarioen hizkuntza prestakuntza, ostalua, mantenua eta garraioa ordaintzen du. Horrez gain, hileko gastuetarako diru kopuru jakin bat ematen die gazteei.

—Zeintzuk dira boluntarioak hartzen dituzten herrialdeak?

—Europar Batasuneko herrialdeez gain, hainbat dira proiektuan parte hartzen dutenak: Aljeria, Egipto, Israel, Libano, Si-



Argazkian, Ibai Guirles

ria, Kuba, Argentina, Nikaragua, Mexiko, Jordania, Honduras, etab.

—Gure artean ez du ematen programa oso ezaguna denik...

—Euskal herritarrek ez dute, orokorrean, Europar Boluntariotza ezagutzen. 1999an jarri zuten martxan, baina erakundeek ez dute horren zereginaren berri eman. Nik, ahal dudan neurrian, hutsune hori bete

gura dut eta, horretarako, guztia azaltzen duen erakusketa antolatu dut Kultur Leioan. Horrez gain, nik bizitako esperientziaren berri emango diot gura duenari eta jarraitu beharreko pausuak azaldu.

—Zeintzuk dira zure bizipenak?

—Boluntario guztiek daukagu istorio bat kontatzeko. Ingalaterrara joan nintzen eta han gertatu zitzaizkidan gauza guztiak kontatzeko arratsalde bat baino gehiago

«Ez dira opor batzuk, bizitzaren eskolan ikastera zoaz»

beharko nuke. Nik urte bi neramatzan ezinduakaz beharrean hemen. Leku berean lan egiten zuen Alemaniako neska batek programaren berri eman zidan eta, aspalditik kanpora atera gura nuen, Ingalaterran antzeko zerbaitetan jardutea erabaki nuen. Mundu osoko lagunak egin nituen bertan, hasiera batean kultura ezberdinetako hainbeste jenderen artean apur bat ikaratu nintzen arren. Orain, ordea, gertatu zaidan gauzarik onenetarikoak dela uste dut.

—Gomendatzen duzu, orduan.

—Urte batean ikasi dezakezuna izugarria da, heldutasun maila majoa lortzen duzu. Argi eduki behar da ez direla opor batzuk, bizitzaren eskolan ikastera zoaz. m

Kultur Leioaren urteurrena

30.000 ikusle inguru bildu ditu **Auditoriumak** orain dela urte bi abian jarri zutenetik



Kultur Leioak 300 ikuskizunetik gora eskaini du azken bi urtean

Kultur Leioaren atea 2004an ireki zituztenetik, 30.000 ikusle inguru igaro dira bere auditoriumetik. Izan ere, azpiegitura berriak zerbitzu anitzak eskaintzea ahalbidetu du. Liburutegiak, esate baterako, Sakonetakoak baino leku gehiago dauka, baita umeentzako txokoa ere. Gazteentzako Informazio Bulegoko eta KZguneko erabiltzaileen kopurua ere nabarmen igo dela azaldu dute egoitzako kudeatzaileek.

Guztira, 200 film eta 150 antzezlan eskaini dituzte Kultur Leioako areto nagusian. Besteak beste, Ismael Serrano, Mikel Ur-dangarin, Korrontzi, Oscar Terol, Tanntaka, Steak Tar Tar, Tentazioa eta Kukubiltxoren emanaldiak izan dira azken urtean ikusgai.

Bestalde, aretoaren bigarren urtemuga ospatzeko, ikuskizun berezia antolatu zuten Kultur Leioakoek joan den hilean: teknologia, argiztapena eta soinua modu ikusgarrian darabilen *Del cel* antzezpena.

Webgune berria

Kultur Leioak, bere urteurrena aprobetxatuz, webgune berria jarri du martxan. Orrialdeak diseinu erakargarria dauka eta eduki berriak eskuragarri jartzen ditu. Horrez gain, web orritik nabigatzeko modu erosoago bat eskaintzen du eta, ustez, lehen baino errazagoa da informazioa kontsultatzea. m

Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

ERABILTOKIA INAUGURATUKO DUTE URRIAREN 20AN

Urriaren 20an euskararen Erabiltokia inauguratuko dute txakoli dastaketa batez (sarrera, 4 euro). Ekitaldia 19:00etan hasi eta 21:00etan amaituko da, Iturribide kalean Erabiltokiak izango duen egoitzan eta, besteak beste, edariaren elaborazioa eta lurraldean arabarako ezberdintasunak erakutsiko dituzte. Leioako bizilagunek euskara erabiltzeko txoko bat izan dezaten martxan jarri du Euskara Zerbitzua ekimena eta, horretarako, makina bat ekintza antolatuko ditu urtean zehar. Urriaren 28an eta azaroaren 4an zein 11n, esate baterako, funky ikastaroa eskainiko du 10 euroren truke.

700 BIZILAGUN DAUDE ETXEBIDEKO ZOZKETEN ZAIN

Leioako 700 pertsona daude Etxebideko itxaron zerrendan. Hori dela eta, laster zozketa berriak egingo dituela iragarri du Leioako Udalak: 65 etxebizitza Ondiz auzoan eta 30 Artaza auzoan. Udalerriko bizilagunek etxebizitza eskuratzea gura du Udalak eta, horretarako, diskriminazio positiboa egingo du. Bestalde, Lamiakon 58 etxebizitza sustatuko ditu Etxebidek.

EUSKADI, 20 URTE EUROPAN ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN

Europa herritarrei hurbiltzea da urriaren 16tik 22ra Kultur Leioan eskainiko duten argazki erakusketaren helburua. Europako funtsaz finantzaturako azpiegiturak, pertsona eta merkantzien zirkulazio askea, ikasleak trukatzeko programak eta euroa izango dira erakutsiko diren gaietako batzuk. Jaurlaritzak “D” Plan europarrera (Demokrazia, Elkarriketa eta Eztatidea) egindako ekarpena da erakusketa.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

[erandio]

Marimar Corchero > Extremadurako Etxeko presidentea

“Gaur egungo **Extremadurak** ez dauka aspaldian kontatu zigutenagaz inolako zerikusirik”

Extremadurako kulturaren oinorde da Marimar Corchero; izan ere, aita bertakoa zuen eta, Donostian jaio arren, txikitatik edan du hango usadioetatik. Aita izan zen hain zuzen ere Astrabuduko Extremadurako Etxeko sortzaileetako bat 1979an; beraz, Marimarren bizitza elkarteari modu estuan lotuta egon dela esan dezakegu. Orain sei urte, berriz, Extremadurako erandioztarren presidente izendatu zuten.



Argazkian, Marimar Corchero presidentea

—Orain dela urte dexente ireki zituen Extremadurako Etxeak bere atak.

—Bai, 1979an jarri zuten martxan, baina 1980ra arte ez zuten ofizialki inauguratu. Euren bizipenak zein zaletasunak elkartrukatze leku bat behar zutela konturatu ziren 50 eta 60ko hamarkadetan behar egitera etorritako Extremadurako langileak eta hori aurrera erateko egoitza ireki zuten. Hasieran, lokal txiki batean biltzen ziren, baina denboraz lekua handituz joan dira: liburutegia, informatika gela, batzar gela, dantzak entseatzeko aretoa, eskatza... Gaur egun, 206 bat bazkidek osatzen dugu elkarte.

—Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen ekintzak?

—Hasiera batean, dantzak eta abesbatza zi-

ren kalean erakusten genuena, gure ezaugarriak adierazgarriak. Denborak aurrera egin ahala, ordea, eboluzionatuz joan gara eta gauza asko egiten dugu: informatika tailerra, eskulanak, emakumeentzako gimnasia...

—Kultur Astea antolatzen duzue urtero.

—25. edizioa izan da aurtengoa. Urte osoan zehar egindakoa kalera ateratzen dugu, gure kultura ezagutarazteko: dantzak, artisautza, gastronomia... Elkarte sortu eta urte batera hasi ziren hori antolatzen, talde moduan

gure eginkizuna zabaltzea garrantzitsua dela uste dugulako hasi ginen.

—Zer da Extremadura zuretzat?

—Ezezaguna da gehienentzat eta aurreiritzi piloa dago. Gaur egungo Extremadurak ez dauka aspaldian kontatu zigutenagaz zerikusirik, hainbeste behar zuen garapena erdiesaten ari delako. Historian zehar bazterturik egon da, baina orain komunikabideak hobe-

«Extremadura ezezaguna da gehienentzat eta aurreiritzi piloa dago»

tu dira, askoz gehiago mugitzen gara... Bestalde, han egon den jende asko harrিতa geratzen da nahiko berdea dela ikustean. Etxea daukat bertan eta oso identifikatuta sentitzen naiz bertakoagaz. Gainera, oso pozik nago nire seme-alabei ere gustatzen zaie-lako.

—Zein da elkarteari ikusten diozun etorkizuna?

—Jarraipena izango duela uste dut, jendeak atsegin dituen gauzetan parte hartzen du-eta. Jende gaztea erakartzea da gaxena eta horretarako tresnak eskura izan gura genuke, gure erroak denborak gal ez ditzan. Beraiei zuzendutako ekintzak antolatzen saiatzen gara: informatika tailerra, magic txapelketa... Gaztetan nik ez nuen etorri gura nire aita zegoelako. Ba orain gauza bera gertatzen da gazte-akaz! m

Edukiontzi horiak

Tetrabrick eta plastikoen zako **sastarrontzi handiagoak** ipini dituzte Erandioko kaleetan



Sastarrontzi berriei 3.500 litroko edukiera daukate

Udalerri osoko edukiontzi horiak aldatzea erabaki du Erandioko Udalak eta horretan hasi zen joan den irailaren 26an. Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren menpekoa den Garbiker enpresa publikoak hartu du zeregin hori bere gain eta guztira 84 izan dira kaleetan aldatutako sastarrontziak.

Edukiontzi berriei 3.500 litro satar bil dezakete (orain artekoak 3.000 edo 1.100 litro batzen zituzten) eta satar organikoa gordetzen duten ontzien antzeko diseinua daukate. Tamaina horrek, leku askotan dagoen saturazioa ekiditzeaz gain, birziklapen lantegira sartzen den materiala kalitate hobez hiltzea ahalbidetuko du, bere tratamendua erraztuz. Gainera, edukiontzi guz-

tiek antzeko diseinu eta ezaugarriak edukitzea gura dute udaleko ordezkariak.

Hondakin gehiago

Erandioko Udalak 2005ean bildu duen hiri hondakin solidoen kopuruak %9,9 egin du gora; hau da, 2004an 9.781.000 kilo jaso zen bitartean, 10.181.404 batu zen 2005an. Horietatik 439.630 kilo papera izan zen, aurreko urtean baino 34.000 kilo gehiago. Era berean, bildutako beira eta plastikoen kopurua ere handitu egin da; izan ere, 10.000 eta 14.000 kilo gehiago batu dute, hurrenez hurren. Pilen kopurua, ordea, jaitsi egin da, 2.230 kilotik 2.160ra. m

ARIMA BELTZAREN KONTZERTUA ERANDION URRIAREN 20AN

Arima Beltza taldeak kontzertua eskaniko du urriaren 20an, Topagunea euskara elkartearen federazioak, Erandioko Berbots Euskaraz elkartearen laguntzarekin, antolatutako Kultur Errota egitasmoaren barruan. Emanaldia 20:30ean izango da Erandioko azokan. Euskal Herri osoko 46 elkarte eta 94 eragilek hartu dute parte euskarazko kultur eskaintza aberastea, euskaraz kultura kontsumitzeko ohitura sortzea eta kultur gileen ekoizpena sustatzea helburu duen Kultur Errota proiektu honetan.

XV. MENDI ETA MIKOLOGIAKO KULTUR ASTEA

Atxazpe Mendi Taldearen eskutik, XV. mendi eta mikologia astea egingo da urriaren 16tik 22ra Josu Murueta kultur etxean. Antolatzaileek, aurreko ere, oso eskaintza zabala prestatu dute, besteen artean honako ekitaldiak izango ditugularik: sendabelarren, bertako zuhaitzen eta argazki lehiaketaren erakusketa (16tik 22ra); Jose Carlos Tamayoren hitzaldia, “La Antartida” (urriak 19, 19.30ean); Koldo Zubimendiren hitzaldia (urriak 20, 19.30ean); perretxikotan joateko txangoa (urriak 21) eta erakusketa mikologikoa (urriak 22).

2.909 IKASLERENTZAKO ESKAINTZA ERANDIOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN

Hasiberria dagoen ikasturtean 2.909 ikasle hartuko dituzte Erandioko ikastetxe publikoak. Udaletxeak dioenez, matrikulazioaren igoera hau Hegoameriketarik etorritako etorkinen gorakadaren ondorioz gertatu da. Ikasle gehien hartuko dituen ikastetxea lanbide heziketako Ategorri-Tartanga zentroa izango da, 1.004 ikaslerekin. Alzaga ikastolak 386 ume hartuko ditu, hauetako 9 etorkinak.

A Arasa
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

SOPELAKO ZERGEK %3,8KO IGOERA IZANGO DUTE DATORREN URTEAN

Datorren urtean udal zergak %3,8 igotzeko gobernu taldearen proposamena onartu du udalbatzak, EAJren gehiengoagaz. KPIren igoeraren ehuneko bera igotzea da hurrengo ekitaldian hartuko den neurriaren helburua. Beraz, 2007an hiru arlotan aplikatuko dute igoera: jarduera ekonomikoetako zergan, ibilgailuen zergan eta ondasun higiezin zergan. Bestalde, gainerako alderdiek hartutako erabakia kritikatu dute, gaur egun biztanleek ordaindu beharreko kopurua nahikoa dela uste dutelako.

16 LAN AURKEZTU DITUZTE SURFARI BURUZKO KAZETARITZA LEHIAKETARA

Sopelan egingo den surfari eta bodyboardari buruzko lehenbiziko kazetaritza lehiaketara aurkezteko epea agortu egin da dagoeneko. Guztira, 16 izango dira lehiatuko diren lanak. Kalitate handiko artikulua, argazki eta bideoak direla nabarmendu dute antolatzaileek eta asko komunikabide entzutetsuetan argitaratutakoak direla gaineratu dute: 3sesenta, Surfer Rule, Local Surf Magazine, ETB, Plentzia Telebista, Uribe Kosta Digitala, etab. Epaimahaiak datorren azaroaren 9ra arte izango du lanik onenak zeintzuk diren erabakitzeke. Saria 1.000 eurokoa izango da.



CDak birziklatu Hondakin metalikoak botatzeko kutxak jarriko dituzte Udaletxeko sarreran



Garbikerrek ipiniko ditu edukiontzia

Irailaren 25etik, CDak eta DVDak birziklatzeko aukera eskaintzen die Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Garbikerren laguntzaz, Sopelako biztanleei. Horretarako, hondakin metalikoak batzeko kutxak jarri ditu Udaletxeko sarreran eta gura duenak 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 21:00-etara erabili ahal izango ditu.

Batutako hondakinak Garbigunera erango dira, bertan produktu metaliko berriak sortzeko presta ditzaten. Gainera, erabiltzaileen intimitatea babesteko, CD eta DVD guzietako edukiak ezabatuko dira, Udalak horretarako erosi duen tresna berezi batez.

Birziklatzeko prozesua

Edukiontzietan utzitako CDak eta DVDak birziklatzeko pauso jakin batzuk jarraitu behar dira. Lehenengo eta behin, oso zati txikitari ehotu egiten dira eta materialaren kalitatea zein den jakiteko laginak hartu. Ondoren, zati guztiak garbitu egiten dira, tinta edo paper zantzuak ezabatzeko.

Behin siku daudenean, zatiak urtu egiten dituzte eta molde batean sartu tresna ezberdinak sortzeko: ordenagailuentzako zein inprimagailuentzako karkasak, alarmentzako kutxak, etab. ^m

Berdintasun Plana

Sexuen arteko ezberdintasunak ezabatzeko egitasmo estrategikoa onartu du Udalak



Eguneroko esparru guztietan aplikatu nahi du plana Sopelako Udalak

Udalerriko emakumeen eta gizonen arteko "benetako" berdintasuna lortzeko plana onartu zuten, joan den irailaren 28an, Sopelako Udaleko ordezkariak. Uribe Kostako Mankomunitateak hitzartutako egitasmoa da, baina udalerrri bakoitzak izango du, horik abiatuz, bere plan estrategiko propioa eratzeko ardura.

Biztanleria osoari zuzendutako ekimena da berdintasunarena eta Udaleko arlo guztietan aplikatuko da. Herritarren parte hartzea, berriz, politikariak, teknikariak eta gizarte eragileak kontuan hartuko dituen foro baten bidez bultzatuko da.

Hortaz, eguneroko esparru gehienetan plana aurrera eroatea gura dute ekimenaren bultzatzaileek; lan, osasun, pertsonen arteko harreman, etxeko lan eta planifikazio urbanistikoa, besteak beste.

Egitasmoa 2006ko irailean abian jarri

eta 2007ko hil berean burututa egotea espero dute Udaleko ordezkariak. Horrela, 2007ko maiatza arte izango dute planeko estrategiak aplikatzeko eta iraila arte lortutako emaitzen ebaluazioa eta balantzea egiteko. Horren ostean, ateratako ondorioen arabera, hurrengo urtean jarraitu beharreko ibilbidea zehaztuko dute.

«Planak Berdinsarean sartzeko aukera emango dio Sopelari»

Besteak beste, Udaletxeko langileek lengoia sexista ez erabiltzea, arlo ezberdinetan generoaren ikuspegia sartzeko eta Itzartu Sopelako Emakumeen Elkarteagaz kolaborazioa ahalbidetuko du Berdintasun Planak. Horrez gain, berdintasunaren alde dauden udalerrien Berdinsarean sartzeko aukera emango dio Udalarri. ^m

ASIER MENTXAKAREN ERAKUSKETA

Erakusketa ibiltaria da Asier Mentxaka UK aldizkariko argazkilaria, beraz, Uribe Kosta eskualdeko hainbat udalerritan izango dugu ikusgai. Hain zuzen ere, oraingoan, Sopelan izango du gura duenak Mentxakaren lana ikusteko aukera. Azken 5 urteotan ateratako erretratu guztien artean, 20 argazki aukeratu ditu erakusteko argazkilaria getxoartzarrik. Urriaren 16tik 27ra arte egongo dira irudiok ikusgai, Sopelako Udaletxeko hall kulturalean.


DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
 - Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
 - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilton@euskalnet.net

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela

Zatoz gure tabernara!

KALEKO ALTZARI BERRIAK IPINI DITU UDALAK

Udalerriko hainbat tokitan, sastarontzi, espaloian autoa ez uzteko pibote metaliko eta jesarleku berriak ipini dituzte. Lan horiek egiteko 100.000 euroko aurrekontua behar izan dute. Bestalde, Simon de Otxandategi etorbidea Berangoetaz lotzen duen bidegurutzan errotonda bat eraiki eta espaloiak zabalduko dituzte laster. Era berean, bertan dagoen iturria aldatu egingo dute eta Otxandategiren irudia daukan harria eraberritu; izan ere, Jose Maria de Basterrak egindako monumentua 1911n inauguratu zuten eta denboraren poderioz hondatu egin da.

AGUSTIN BILBAO MARGOLARIAREN ERAKUSKETA BILBON

Agustin Bilbao margolari berangoztarrak bere lanak erakutsiko ditu urriaren 20ra arte, Bilboko Barrainkua kalean dagoen Kultur Etxean. Erakusketaren ordutegia 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik-21:30era izango da. Pertsonaia ezberdinak erabili ditu Bilbaok modelo moduan; batzuk errealak dira, beste batzuk ametsetakoak eta sinboloetatik eratorritako hainbat irudi ere badaude (sorginen munduari ageriko omenaldia egiten dio hiru mihisetan). Pertsonen ezaugarri errealistak eta izaera abstraktoko hondoak kontrajarri ditu margolariak.



Alfonso Sastreren erretratua

2.000 etxebizitza berri

Herritarren kopurua bikoiztu egingo da



Etengabe etxeak eraikitzen ari dira Berangon

Berangon, 2.000 etxebizitza eraikiko ditu Eusko Jaurlaritzak 2011rako eta horietatik 1.500 babes ofizialekoak izango dira; izan ere, Zoruaren Lege berriaren arabera, eraikitzeko aproposa den lur eremuaren %75 mota horretako bizilekuak egiteko erabili behar da (lehen-go Maturana Legeak onartzen zuen kopurua baino handiagoa).

Joan den irailaren 27an, Bilbo Metropolitiko Lurralde Plana behin betiko onartu zuen Jaurlaritzak eta, ondorioz, altuera gutxiko urbanizazioak eta txaletak dauden auzoetan bloke altuagoak altxatu ahal izango ditu Udalak. Honako hauek dira proiektua aurrera eramateko erabiliko dituzten lur eremuak: Otxandategi, Lukategi, Lotxiarena, Santa Ana,

Kurtzes eta Intxaurraga.

Hortaz, Bizkaiko hirugarren hedapen urbanistiko handiena izango da Berangokoa, Getxokoa eta Bilboko Abandoibarrakoaren ostean. Gainera, Lurzoruaren Lege berria beteko duen lehenbizikoa izango da; beraz, beste proiektuetan baino babes ofizialeko etxe gehiago zozkatuko dituzte. Etxebizitza berriek udalerriko biztanleria bikoiztuko dute (gaur egun, 6.000 pertsona bizi dira bertan).

Bestalde, joan den irailaren 21ean beste 19 etxe zozkatu zituzten Etxebiden izena emanda zuten 116 pertsonen artean. 70 eta 90 metro koadroko etxeak dira eta iazko ekainean eraikitzen hasi zituzten, Intxaurraga auzoan. m

Koska irratia > Uribe Kostako uhin libreak

“Komunikabide alternatibo euskalduna herritarren eskura ipintzea dugu helburu”



Facun, gidatzen duen saioaren momentu batean

Orain dela zazpi urte getxoetar talde batek martxan jarritako irrati librea da Koska. Bi urtez proiektua landu ondoren, uhinen barrena emititzen hasi ziren. Garai hartan, herriko kolektibo ezberdinek programazioa osatzen zuten 94,4 dialean. Denbora pasa ahala, ordea, diala aldatu behar izan zuten (108,0 dialean daude orain). Halere, irratiaren helburuak hasierako bera izaten jarraitzen du: komunikabide alternatibo euskalduna herritarren eskura ipintzea.

Aurten, programazio berria aurkeztu dute eta horren berri eman digute bertako Iñigo eta Facun esatariek. “Inoiz izan dugun maila onena daukagu aurten. Egoitza hobea da, baita baliabide teknikoak ere eta kalitatezko lana egiteko urte hau klabea dela uste dugu”, dio Iñigok. Horretarako, berrikuntzak sartu gura dituzte programazioan. “Ideiak ugariak dira. Albistegi eta goizeko magazin bat egin gura dugu: zuzeneko mezuakaz, azken orduko berriakaz...”, azaldu du Facunek. Oraindik, ez dute magazinaren ordutegia finkatu baina jendea-

ren parte hartzea beharrezkoa dela nabarmendu dute. “Arratsaldeko eta gaueko programazioa ere oso garrantzitsua izango da. Aurten, gauerdian lehenbizikoa aldiz saioa eskainiko dugu, sexuari buruzkoa”.

Halere, ez dira makalak hemendik aurrera gainditu beharreko oztopoak. Izan ere, esatariek jakinarazi dutenez, datorren urtean irrati guztiak boltsa batean sartu eta uhinen “garbiketa” egingo du lege

«Albistegi eta goizeko magazin bat egin gura dugu»

berri batek. “Mobilizaziorako deia luzatu beharko diogu entzuleari. Une latzak etorriko dira, baina ezin izango gara damutu zerbait egin ez izateagatik. Dial osoa berrituko dute eta mota biko irratiak egongo dira: publikoak eta pribatuak. Sailkapen horretatik kanpo irrati libreak edo herri irratiak geratuko dira eta guk hirugarren figura bat sortu gura dugu”, salatu du Facunek. m

cianoplan Reprografia

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteiak kolorez eta z/b •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
ermarkaketak •



TXIBERRI edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Teléfono: 940 701 120



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zure publikizitatearen zuzeneko erantzuleak gara. Zure publikizitatea hemen

94 491 13 37

PLENTZIAKO URIA PERRETXIKO ASTEAREN BOSGARREN EDIZIOA

Urriaren 30etik azaroaren 5era X. Plentziako Uria Perretxiko Astea egingo dute Goñi Portalen. Aste horretarako, hainbat ekintza antolatu dute, tartean, filmen proiektzioak eta hitzaldiak. Azken eguna izango da bereziena, izan ere, perretxiko erakusketa, umeen lehiaketa, perretxikoz egindako pintxoaren dastaketa eta sari banaketa antolatu dute ordurako.

POESIA ETA MUSIKA UZTARTUKO DITU ORPHENICA LYRA TALDEAK

¿Conoces el país donde florece el limonero?, Mozart y Goethe lana ikusgai egongo da urriaren 27an, 20:30ean, Gorlizen. Orphenica Lyra eskainiko du poesia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna. Aktuazioa gaztelaniaz izango da.

SORGINEN IBILALDIA ANTOLATU DU MATRAKO MENDI TALDEAK

Matrako mendi taldeak *Sorginen ibilaldia* edo Zugarramurdi-Urdax-Zugarramurdi mendi martxa antolatu du urriaren 29rako. Irteera Ontziola plazatik egingo dute, 8:00etan. Txangoak 18 euro balio du (15 bazkideentzat) eta prezioaren barruan sartzen dira autobus bidaia zein kobazuloetatik egingo duten bisita gidatua.

GORLIZ

Kalitate handiko lanak XIV. argazki txapelketan



Lehenengo saria eskuratu duen lana. Egilea, Maria Garcia Aguilera

Arrakastatsua izan da Gorlizko argazki eta diapositiben txapelketa. Aurtengoan, Kultur Etxeak antolatutako lehiaketaren XIV. edizioan, 40 argazki eta sei diapositiba aurkeztu dira. Hauek guztiak, Gorlizko Udal erakusketa aretoan ikusgai izan ditugu, irailaren 30a arte. Epailerek (Asier Mentxa eta Aitor Ortiz argazkilariak) oso zaila izan dute erabakirik hartzea, kalitate handiko lanak aurkeztu dira-eta. Azkenean, Maria Garcia Aguilera santurtziarrak eskuratu du lehenengo saria (500 euro),

Gorlizko pinudiaren argazki ikusgarri bati esker (goian). Azken ediziotako irabazleak Asier Castro eta Isabel Diaz izan ziren.

Antolatzaileen arabera, oso harrera ona izan du bai lehiaketak, bai honetan bildutako argazkiekin antolatutako erakusketak. Bizkai osoko jendeak hartu du parte eta estilo eta gai ezberdinetako argazki eta diapositibak aurkeztu dituzte. Erakusketa, argazkigintzaren arteaz gozatzeko aukera ezin hobea izan da. Datorren urtean aukera berria izango dute zaleek. m

Urr. 16 - aza. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Roman Aguinacoren margolanak.** Algortako erakustaretoa. Urriaren 16tik 28ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30
► **Mozart eta musika.** Algortako erakustaretoa. Urriaren 30etik azaroaren 10era arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

LEIOA

► **Euskadi, 20 urte Europan.** Argazkiak. Kultur Leioako Ambigu. Urriaren 16tik 22ra arte. 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

GORLIZ

► **Mark Twain. Huckleberry Finnen abenturak.** Liburutegia. Urriaren 21etik azaroaren 4ra arte.
► **Vicente Huidobro: Salle XVI olerkia.** Liburutegia. Urriaren 21etik azaroaren 4ra arte.

PLENTZIA

► **Mari Fernandez margolanak.** Goñi Portal. Urriaren 16tik 31ra arte. 11:00-13:00 eta 16:30-21:00.

ZINEMA

LEIOA

► **Alatriste.** Auditorium. Urriak 22, domeka, eta urriak 23, astelehena. 20:00. Sarrera: 4 euro.
► **Cars.** Umeentzako zinea. Auditorium. Urriak 22, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.
► **Junebug.** Jatorrizko bertsoan. Auditorium. Urriak 24, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
► **Asterix y los vikingos.** Auditorium. Urriak 29, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

► **Antzerkia**

Getxoko XXIV. Antzerki Jardunaldiak

XXIV. Antzerki jardunaldien azkenengo txanpaz gozamen hartzeko aukera badaukate oraindik hilaren 20tik 22ra Getxora hurbilduko direnek. Umeentzat edo helduentzat, euskaraz edota gaztelaniaz eskainiko dituzten lanak ondorengoak dira: hilaren 20an *Zeta* (Hika, Getxo Antzokia, 19:30 eusk., 22:00 gaztel., 7/9 euro); hilaren 21ean *Herialde urdina* (Azika, Andres Isasi Musika Eskola, 12:30 gaztel., 18:00 eusk., 3,5 euro), *Zintzoaren ametsa* (Kalean, Geltoki plaza, 13:00 eusk.) eta *El chico de la ultima fila* (Ur, Getxo Antzokia, 20:00, 7/9 euro). Hilaren 22an Antzerki jardunaldiak agurtuko dituzten emanaldiak hauek dira: *Bazen behin zirkoa* (Zirka Zirkus, Andres Isasi Musika Eskola, 12:30 gaztel., 18:00 eusk., 3,50 euro) eta *El Pisito* (Trapu zaharra, Geltoki plaza, 13:00).

• **Non:** Getxo • **Noiz:** urriaren 20tik 22ra arte

► **La sombra de la sospecha.** Auditorium. Urriak 29, domeka eta urriak 30, astelehena. 20:00. Sarrera: 4 euro.
► **Syriana.** Auditorium. Urriak 31, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

GETXO

► **Plan oculto.** Jatorrizko bertsoan. Cinema Paradiso. Getxo Antzokia. Urriak 27, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.
► **Piratas del caribe II.** Getxo Antzokia. Urriak 29, domeka.

12:00, 17:00 eta 19:00.
Sarrera: 2 euro.

ANTZERKIA

LEIOA

► **La flauta mágica.** Umeentzako opera. Auditorium. Urriak 21, zapatua. 17:00 eta 19:00. Sarrera gonbidapenagaz.

ERANDIO

► **Lezio berri bat ostrukari buruz.**

Altzaga merkatua. Urriak 26, eguena. 20:00. Sarrera gonbidapenagaz.

BESTEAK

LEIOA

► **Kontzertua: Marcos Coll & Adrian Costa (Los reyes del KO).** Cafe Ambigu. Urriak 27, barikua. 22:00. Sarrera: 6 euro.
► **Kontzertua: Revólver.** Auditorium. Urriak 28, zapatua. 20:30. Sarrera: 15 euro.
► **Rock eta poesia: Gari & Jose Ignacio Lapido.** Auditorium. Azaroak 2, eguena. 20:00. Sarrera: 10 euro.
► **Kontzertua: Los violines del diablo.** Auditorium. Azaroak 3, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.
► **XXVII. Artisautza Azoka.** Errekalde plaza. Azaroak 4 eta 5. 10:30-14:30 eta 17:00-21:00.
► **Zinema eta kooperazioa: herri indigenak.** Erakustaldia. Auditorium. Urriaren 16tik 18ra arte. 20:00. Sarrera gonbidapenagaz.

ERANDIO

► **XV. Mendi eta Mikologiako Kultur Astea.** Josu Murueta kultur etxea. Urriaren 16tik 22ra. Atxazpe Mendi taldeak antolatuta.

GETXO

► **IV. Bihotza Gazte.** Bertsolariak. Algortako The Piper's Irish Pub. Urriak 20, barikua. 22:00.
► **XXVI. Aste Korala.** Getxo Antzokia. Urriaren 25etik 28ra arte. 19:30. Sarrera gonbidapenagaz.

BARRIKA

► **Liburu magikoa.** Umeentzako tailerrak. Lehendakari Agirre plaza. Urriak 21, zapatua. 11:00.

GORLIZ

► **Mozart eta Goethe.** Olerki eta musika saioa. Orphenica Lyra erakusgela. Urriak 27, barikua. 20:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Gerra jolasak

Getxoko Udalaren eskakizunak mespretxatuz, inbasio eta indar erakustaldia egin zuten Espainiako armadakoek Ereagan irailaren 27an. Zazpi bat parakaidistek lurra hartu zuten Algortako hondartzan. Hantxe "gora Espainia" oihukatuz ongietorria eman nahi zieten lagunekin, Euskal Herritik alde egin zezatela ozen eskatzen zietenekin eta udako azken hondartza egunak aprobetxatzen ari zirenen indiferentziarekin egin zuten topo militarrek gerra jolasetan zebiltzala. Tamalez, gerra ez da jolasa.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ilargirako hegazkina

Alfredo Aldai

Gauza jakina da gaur egun teknologiak baliatuz irudiak erraz truka daitezkeela. Baina guk aitortzen dizuegu, benebenetan, orrialdeotara ekarri dugun hau “egiazkoa” dela. Alfredo Aldai argazkilaria hiru urte luzez ahalegindu da berau ateratzen eta akabuan baita lortu ere. Irudia gogoan zeukan Alfredok, sarritan bere etxeko balkoitik ikusten zuen eta. Argazkia hartua izateko baldintza asko bete behar ziren aldi berean: ilbetea, zerua hodei barik egotea, eta hegazkina ilargia eta bere kameraren objetiboaren artetik pasatzea. Itxaroten jakiteak bere sariak dakartza, argazki eder hau kasu.

[berbetan]

Munduaz guztiz isolatuta bizi diren horietakoak ez bazarete, jakingo duzue honezkero urriaren 22an Getxotik abiatuko dela Velux 5 Oceans erregata. Zortzi lehiakide, zortzi ontzi. Espikatzea erraza da, egitea ez hainbeste: munduari bira egin behar da, bidean geldialdi bi eginez. Urrian hasi eta maiatzean amaitu, norberaren ontzia eta itsasoa beste lagun barik. Unai Basurko gaztea izango da abentura zoragarri horri ekingo dioten zortzi gizonetako bat. Portugaletekoa izatez, erdi-getxoartzat aldarrikatzen du bere burua. Azkorin ikasitakoa, Algortakoak ditu lagun gehienak eta kirol portua ere Getxon dauka orain. Hantxe elkartu gara beragaz, Velux 5 Oceans erregatarako erabiliko duen *Pakea* ontziaren ondoan. Basurko ez da oso berritsu agertu. Erantzun motzak eman dizkigu gehienetan, ez horregatik mami gutxikoak ordea. Halakoa izango du izaera, edo beharbada hilabetetan zehar jasango duen isiltasunerako ariketak egiten hasita dago. Ez dakigu. Edozelan, zorte on, Unai.

Unai Basurko

Ortzi-muga beste mugarik ez

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zerk bultzatzen zaitu Velux 5 Oceans bezalako abentura handia egitera?

—Txikitatik nabigatu dut. Gero eta urrunago joaten zara, gero eta jende gutxiagoz... Eta azkenik, bakarkako nabigaziora ailegatzen zara. Itsasoan bakarrik ibiltzea, azken batean, bela mundu zabal horrek eskaintzen dituen aukeretako bat da. Lagunakaz joan daiteke, familiagaz, erregatan, plazeragatik, bidaian... Gura duzuna egin dezakezu.

—Kontua da jende askok duela itsasoan ibiltzeko zaletasuna, baina besterik da bakarrik ibiltzea. Bakardadea pizgarria da, erronka...?

—Bakardadeak ontziarekiko eta inguru-nearekiko -hau da, itsasoarekiko- harremana estutzen du. Pauso bat harago egitea da.

—Lehenengo pausoz berba egin dezagun, orduan. Zelan hasi zen zure harremana itsasoagaz?

—Gurasoen eskutik, eta oso txikia nintzela. Neba-arreba guztiak eroaten gintuzten nabigatzera, eta hasieran oso belantzi txiker batean ibiltzen nintzen, Getarian. Han egiten genituen udak, lehengusu-lehengusin guztiok. Ondoren, gero eta ontzi handiagotan hasi nintzen, apurka-apurka. Itsasora urteten duzun egun bakoitzean zeozer berri ikasten duzu.

“Bakardadeak ontziarekiko eta itsasoarekiko harremana estutzen du”

—Bestela ere, ez daukazu itsasoagaz lotutako inongo ikasketarik?

—Ez, ez naiz ibili inolako nautika-eskolatan. Uste dut itsasoa bera dela irakaslerik onena. Ez dago nabigatzeak adina irakatsiko dizun eskolarik.

—Buelta gaitzen Velux 5 Oceans erregatarara. Hau izango da zure orain arteko erronkarik handiena?

—Bai. Inoiz egin dudan gauzarik gogor, luze eta garrantzitsuena izango da. Eta horretan gabiltza, lan handia eginez dena ondo joan dadin.

—Bela-nabigazioa, bide batez esan dezagun, lanbidea duzu...

—Hala da, bai, honela betetzen dut lapikoa. Badira urte batzuk honetan dihardudala. Nabigatu egiten dut, estropade-

tan parte hartu, ontziak konpondu, pres-tatu...

—Eta dirua?

—Oraingo proiektu honek, esate baterako, BBKren babesa dauka, eta proiektu profesionala da. Nigaz lanean dabiltzanek ere badaukate euren soldata. Profesionaltasuna bete-betean agertu da bela munduan azken urteotan. Jakina, hone-



lako egitasmoak aurrera ateratzeko derri-gorrezkoa da erakunde publikoen edo enpresen laguntza. Gero, zalantza barik, ordain bat jasotzen dute: komunikabideetan behin eta berriro agertzea. Argazkiak, el-karrizketak...

—Hala eta guztiz ere, ez da erraza izango bela-nabigazioa ogibide edukitzea...

—Ez. Lehen esan dizudanez, lau urte daukadanetik nabil bustitzen, udan nahiz neguan. Betidanik ibili naiz itsasoan, eta orain nagoen kinka honetara ailegatzeko bide luze eta maldatsua egin behar izan dut. Apurka-apurka irabazten den zeozer da, borroka handia eginez. Baina orain garrantzi handiko proiektu baten buru izateko pribilejioa daukat, hori ere esan behar da.

—Belan nabigatzea lanbide modura edukitzea nor bere buruari ezarritako helburua da, edo ailegatu egiten zaizu?

—Ailegatu egiten zaizu. Halako batean konturatzen zara egiten duzun guztiak ontziakaz zerikusia daukala. Urte erdia baino gehiago ematen duzu uretan, egunean hamabi orduz. Eta bizimodua horretara bideratzea erabakitzen duzu.

—Baina edukiko zenuen bestelako asmorik behar bada... Ikasketaren bat edo?

—Zuzenbidea ikasi nuen, eta amaitu ere bai. Baina ez dut inoiz horregaz lotutako lanik egin. Ahalegindu egin nintzen baina... Azkenean, belan buru-belarri jarraitzea aukeratu nuen.

—Esan beharrik ez dago orain egingo duzuna bezalako erregata baterako prestakuntza handia behar dela. Gorputza sasoi onean egotea ezinbestekoa dela argi dago. Baina, zelan prestatzen da gogo?

—Gogo eta gorputz prestakuntza, biak dagoz elkarri oso lotuta. Hala ere, uste dut gogo ezin dela entrenatu. Zeozer hobetu daiteke, kezka uxatu... Baina prestakuntzarik onena aurretik itsasoan emandako urte mordo direlakoan nago; eta benetan munduari bira bakarrik egin gura izatea. Zalantza betea joatea da gauzak txarto ateratzeko modurik onena. Bestetik, eta

alde fisikoari dagokionez ere, proba hau oso gogorra da. Etapa bakoitzak 45-50 egun irauten duen maratoi handia da. Eta egunean zehar ahalegin handiak egin behar izaten dira behin baino gehiagotan. Gorputzak ondo prestatuta joan behar du, bai.

—Lehiakide guztiak aldi berean abiatuko zarete. Baina, elkar ikusiko duzue itsaso zabalean zagozanean?

“Lasterketak dirauen denboran ez da inoren aurpegia ikusten”

—Ez. Lasterketak dirauen denboran inor ez ikustea da normalena. Ez gainerako lehiakideen ez beste inoren aurpegirik.

—Zenbat denbora?

—Lehenengo etapak 50 egun irauten du, bigarrenak 60 eta hirugarrenak 15, gutxi gorabehera. Hemendik Australiara joango gara lehenengo, Indiako Ozeanotik, Afrika hegoaldeko igaro eta gero. Bigarren etapen Ozeano Barearen hegoaldea zeharkatuko dugu, Hegoamerika inguratu eta AEBetako ekialdeko kostalderaino joan.

—Suez eta Panamako kanalak ez dituzue erabiliko orduan...

—Ez, ez. Munduko lekurik gatxenetatik ibiliko gara.

—Orduan, hirugarren etapa -AEBetik Bilbora, Ozeano Atlantikoa zeharkatuz-

“Gatxa izaten da bueltatzea, ez duzu lehorrean ibiltzeko ohiturarik”

ahuntzaren gauerdiko eztula izango da zuentzat...

—Ez ba! Udabarria izango da, eta sasoi horretan ipar Atlantikoa ez da batera leku goxoa.

—Zuk nabigatu izan duzu bakarrik dagoeneko. Zelan egiten zaio aurre bakardadeari? Badaukazu irratirik, nogaz berba egin?

—Hara, bai, badugu irratia bat, eta fami-

liagaz eta komunideakaz berba egiteko satellite bidezko telefonoa ere bai. Egunerero, lantzean behin, berriketaldi labur bat egiten duzu, eta gainerako denboran beste gauza batzuek ordezkatzen dute berriketa: pentsatzea, idaztea, irakurtzea...

—Pelikuletan ikusten ditugu, batzuetan, isolatuta luzez egoten diren presoak, eta zelako gauzak egiten dituzten ez zoratzeko. Halakorik?

—Ez. Oso lanpetuta ibiltzen gara: jatekoa prestatu, konponketak egin, nabigazioa, bide egokiena aukeratu... Lan handia. Ez dago aisialdi askorik, eta dagoena lo egiteko erabiltzen da sarritan.

—Eta jatekoa?

—Dena neuk daroat, eta gainera arrantza egiteko lanabesak ere badauzkat. Geldi nagoenean edo ontzia oso astiro dabilenean arrainen bat harrapatzen ahaleginduko naiz. Animalia proteinak beti dira eskertzekoak. Bestela, zer? Bada, oso oinarritzko janaria: arroza, pasta, patatak... Apur bat aspergarria. Eta asko. Eguneroko 6.000-7.000 kaloria jaten dira; lehorrean jaten dugunaren bi halako. Kaloria asko erretzen da han, eta sano mehetzen gara.

—Eta fruta, barazkiak?

—Lehenengo egunetarako eroango dut, usteldu arte. Hortik aurrera, bitaminadun pilulak.

—Zer jazoko da gaixotuz gero?

—Ontzian badago botika-kutxa bat, eta gainera nik badaukat IMQgaz akordio bat: zeozer jazoz gero kontsulta-telefono batera dei dezaket. Tira, ontzian behintzat ez dago birusik. Birusak lehorrean baino ez dagoz.

—Sarritan ikusiko duzu lehorra?

—Ibilbiderik egokiena hurbiletik igarotzen denean, bai, baina egunik gehiengotan ez da lehorrik ikusten. Hemendik Australiara, bat ere ez.

—Mila bider itaunduko zizuten: badago esplikatzerik zer sentitzen duen norberak halako bakardadean, ontzi txiker batean eta itsasoa nongura?

—Itsasoa bare dagoenean, ontzia ere ondo, nahikoa jan eta lo egin duzunean... Alegia, ontziak, naturak eta patrioiak osatutako hirukotea behar bezala dagoenean, benetan gozatzen da. Ontzia surf-ohol bat bezalakoa da. Luzaroan egon daiteke hari begira, oso atsegina da itsaso gainean zelan dabilen ikustea.

—Orain arte zenbat izan da itsasoan bakarrik eman duzun denbora luzeena?

—30 egun.

—Eta zelakoa izaten da buelta?

—Apurtxu bat gatxa, ez zagoz ohituta lehorrean ibiltzen.

—Oinez ibiltzen, esan gura duzu?

—Hori ere bai. Baina gizarte-harremanez ari nintzen. Kosta egiten da... Eta loa, otorduak... ere bai. Gatxa da, baina bestalde, lehorrean zagozenez gero ez zara arduratu behar ontzia ondo ibiltzeaz, eta horrek atsedena ematen dizu beti ere.

—Ontzian sano lanpetuta ibili arren, pentsatzeko denbora ere edukiko duzu...

—Pentsatu egiten da, bai. Lehorrean ari negi gabiltza guztiok, ez daukagu geure buruei eskaintzeko denborarik. Ontzian, aldiz, badago astia hausnartzeko.

—Eta horrek aldatu egiten zaitu?

—Halaxe uste dut, bai. Eta asko ikasten da bizitzaz. Zalantza barik.

—Bide batez: erregata hau lehia da azken batean. Zer garrantzi dauka irabazteak? Amaitzea ere bada garaipena, izan ere...

—Bai, uste dut norberarentzat amaitzea badela irabaztea. Hala ere, ahalik eta arinen joaten ahalegintzen gara, ontzia arriskuan jartzen ez dugun bitartean noski.

—Zera esan gura dut: kirol honetan lehiakortasun handia dago? Edo proba honetan behintzat?

—Azkenerako jendea “berotu” egiten da. Kontuan eduki behar da egun asko dirauen lehiaketa dela. Urrian abiatu eta maiatzean bueltatuko gara. 120 egun inguru, eta eguneko 24 orduetan zehar. Ez dut uste munduko beste inongo lehiaketatan hainbeste ordu ematen dutenik elkarri mokoka. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu


HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

UK Uribe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



SOPELARAKO SARBIDEA LANETAN

Mimenaga-Sopela

Auto gidarien mesederako baina gure Ama Lurraren kontura, Leioako Artatza eta Sopela elkartzen dituen korridorearen bigarren zatia -Mimenaga eta Sopela lotzen dituen- zabaldu dute uda honetan. Egunero 35.000 autoen joan-etorria jasan ei du orain dela urte bi egiten hasi ziren errepidetzar berri honek. Bide nagusia ez ezik Sopelara hegoaldetik sartzeko bidea, etorkizunean egingo den Unbeko korridorearekin lotura, eta Berangoko Kurtze auzorako zein Gorrondatxe, Atxabiribil eta Arrietara hondartzetarako sarbideak ere eraiki dituzte. Lan hauen jarraipena egin du gure argazkilariak akabuko urte bi hauetan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**









POETAS DEL ROCK

ROCK ETA POESIA
AUDITORIO KULTUR LEIOA
AZAROAK / NOVIEMBRE

02 JOSE IGNACIO LAPIDO

02 JC PEREZ

16 QUIQUE GONZALEZ

16 AURORA BELTRAN

23 ANTONIO VEGA

23 NIKO ETXART

30 JOSELE SANTIAGO

30 GARI

+ hitzaldiak, mahai-inguruak, oti...
+ conferencias, mesas redondas, etc...

Serveren informazio / lista de actividades
TUTU (www.kulturleioa.com) / 94 431 03 10 / 94 431 03 10 / 94 431 03 10 / 94 431 03 10

Información / Información
POESIA DEL ROCK
Paseo Iparrizena, 100 - 48901 GETXO (Vizcaya)
TEL: 94 431 03 10
WWW.KULTURLEIOA.COM



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[zinema]

Zinemaldiko euskaldunak


Euskal Herrian ekoiztako **9 film** eskaini dituzte aurten **Donostiako Zinemaldian**

Irailak agurtu zuen 54. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, eta Uribe Kostako eta Bizkaiko mugetatik urrun bada ere, bakoitzari berea onartu behar zaio. Halaber, datozen hiletan zinema aretoetan ikusi ahalko ditugun Euskal Herriko ekoizpenen eta euskal filmen berri izateko erakusleho ona izan daiteke zinemaldi donostiarra.

90eko hamarkadako amaieran aldarrikatu zuen bere txokotxo Donostiako Zinemaldian Euskal Herriko ikus-entzunezko sektoreak, eta ordutik hartzen dugu begiz Euskal Zinemaren Eguna. Egun horretan askotariko lanak eskaintzen dira, "ekoizleek enabakitzen dute filmaren bizkuntza" eta aurten filmen erdia euskaraz eskaini dira. Eskaini zituzten lanetako batzuk hurrengoak izan ziren: *El síndrome Svensson* (Kepa Sojo); *Txorixak galduta egozenian* (J. Gonzalez Sanchez); *Olentzero* (J. Elordi)...

«**Kutsidazu bidea, Ixabel; Bosque de sombras, Nömadak Tx, Agian, Midori...**»

Alabaina, sail ofizialean euskal lanik egon ez bada ere, aurten Zabaltegi sailean Euskal Herrian ekoiztako 5 lan eskaini dituzte: *Kutsidazu bidea, Ixabel* (Mireia Gabilondo/Fernando Buernes), Koldo Serra



Koldo Serra algortarraren pelikularen kartela

algortarraren *Bosque de sombras*, *La Distancia* (I. Dorronsoro), *Nömadak Tx* (Raul de la Fuente) eta *Agian* (Arkaitz Basterra). Bestalde, gurean ekoiztako beste 4 film *Made in Spain* sailean sartu dituzte, horietako bat euskaraz, *Isiltuana* (J. M. Gutierrez). Oterantzean, Koldo Almandozen *Midori* film laburra ere ezin aipatu barik utzi, edota *El gran Zambini* (I. Legarreta/E. Pérez), *Argentina* (Igor Zabala/ Xavier Etxeandia), *Minamar St.* (J. Garaño), *Bilintx* (J. Andueza) eta *Sarean* (Asier Altuna). m

Filmak > El perro Mongol

Pelikula honek txakurraren eta gizakiaren artean dagoen aspaldiko harremana kontatzen digu. Mongolian, gainera, lotura horrek berebiziko garrantzia hartzen du errenkarnazioaren zikloan. Kasu honetan, Byambasure Daava zuzendariak Mongoliako Nansal neskatoren eta txakurkume baten istorioa kontatzen du. Familia nomada bateko alaba nagusia da Nansal eta txakur bat aurkituko du. Aitak, ordea, ez du animalia etxera ekartzetik nahi, zorte txarra ekar dezakeelakoan. Umeak, oster, txakurkumearen laguna egingo da eta abentura ugari biziko dituzte elkarrekin. Daborduko urteko zientzia-fikziozko filmerik onena dela diote batzuek eta *La historia del camello que llora* zuzendariak egindako aurreneko filmaren kalitate ona mantentzen duela azpimarratzen dute kritiko askok. Ezustea, leialtasuna, sineskeriak eta ohiturakiko begirunea dira film lanetako gaiak.

Rocka eta poesia Leioan

Azaroko bost eguenetatik lautan **kontzertu, hitzaldi, mahai-inguruak...** egongo dira



Argazkian, Antonio Vega. Informazio gehiago: www.kulturleioa.com

Azaroa rockagaz eta poesiagaz buztartuko dute Leioan, Producciones Serranok eta Kultur Leioak elkarlanean antolatu dute-eta "Rock eta Poesia, Poetas del Rock" zikloa. Azaroaren 2, 26, 23 eta 30ean (eguenak denak) ipini dituzte hitzorduak arratsaldeko 8:00etan eta kontzertuez gainera hitzaldiak, mahai-inguruak etab. iragarri dituzte. Hala, musika emanaldiaren aurretik egingo dira hitzaldi edota mahai-inguruak, eta antolatzaileek aurreratu dutenez ordu erdiko iraupena izango dute gutxi gorabehera. Horien ostean, bai, kontzertua eskainiko dute musikariak.

Horrenbestez, egitarauari erreparatzen badiogu lehenengo egunean (azaroak 2) Jose Ignacio Lapido eta JC Perez igoko dira oholza gai-

nera; hurrengo egunean (azaroak 16) Quique Gonzalez eta Aurora Beltranen txanda izango da; azaroaren 23an Antonio Vegagaz eta Niko Etxartegaz ipini dute zita eta, azkenenik, azaroko akabuko egunean Josele Santiagok eta Garik emango dute kontzertua. Mahai-inguru zein baldietan jardungo dutenak kazetariak edota musikariak izango dira (horien artean kontzertua eskainiko duten batzuk), baina oraindik alde hau guztiz itxi barik dagoela jakinarazi dute Rock eta Poesia zikloko antolatzaileek.

Bestalde, egun bakoitzeko kontzertuetarako sarrerek 10 euro balio dute eta BBKren orotarako kutxazainetan edo webgunean zein hurrengo telefonon eros daitezke: 94 431 03 10. m

diskoak

Sorminetan
Anje Duhalde
Elkar



1998. urtetik ez du Lapurdiko kantari ezagunak kantu berri propiorik kaleratu; izan ere, 2000. urtean Gergero Bressen musikariaren kantuen bertsoez osatutako diskoa osatu zuen. Oraingoan, ordea, bere abestiak datorkigu Anje Duhalde, rock, blues eta folk estilok. Rafa Rueda eta Mikel F. Krutzaga produktore artistiko eta teknikari izan dira, hurrenez hurren.

Saturday nights wrist
Deftones
Warner Music



Hiru urtez musika sortu barik egon ostean, disko berria kaleratu du urriaren 31n Kaliforniako Deftones taldeak. Bosgarren bilduma da Sacramentoa eta, besteak beste, System of a Down taldeko Serj Tankianen eta Giant Drageko Annie Hardy aritu dira kolaboratzaile moduan. Bestalde, aipatu taldea desegitiko zorian egon dela diskoa grabatzen egon zen bitartean.

El extraño viaje
Fangoria
Dro Atlantic



Oraingoan ere, rocka, glama, elektronika eta elektro popa izan dira Fangoriaren iturri musikalak. Hainbat kolaboratzaileen laguntza izan dute sortutako abesti berrietan, tartean, Placeboko Stefan Olsdal baxu jotzailearena. *Criticar por criticar* da bikoteak aurkeztu duen lehenbiziko singlea. Horren bideoak Mexiko D.F.-ko Spartacu's dantzaleku ospetsuan grabatu dute.

diskoa >

Joseba Tapia



Real Politik diskoa plazaratu berri du Joseba Tapiak, bakarkako ibilbideari ekin zionetik lasartearren laugarren lana dena.

Lehenengo eta gaurko idazleen letretan oinarritutako 14 bat kantuk osatzen dute disko berria, besteak beste: Gabriel Aresti, Bertolt Brecht, Kurt Weillen, Jacques Prevert... eta zelan ez, azkenengo urteotako bidaialagun Koldo Izagirrerren hainbat testu ere erabili ditu *Real Politik* osatzeko. Bakarkakoetan eduki dituen musikariak eduki ditu ondoan oraingoan ere, hala nola, Arkaitz Miner (biolina eta mandolina) eta Jexus Aranburu (teklatura). Halaber, abestietako bati Natxo de Felipek ipini dio ahotsa. Bestalde, estilo aldetik askotarikoa da, baina dantzarako joera nagusitzen dela esan daiteke.

Informazio gehiago: www.josebatapia.com

entzunaldiak >

Aste Korala Getxon

XXVI. Aste Korala hartuko du Getxo Antzokiak urriko azkenengo egauzetenetik zapatura bitartean. Antolatu diren lau entzunaldiak 19:30ean hasiko dira eta hurrenez hurren, hurrengo abesbatzek jardungo dute: Getxoko Irutasun abesbatza (hilak 25), Kubako Santiago de Cuba orfeoia (hilak 26), Errusiako Anima abesbatza (hilak 27) eta Bulgariako Te deum adoramus abesbatza (hilak 28). Sarrera gonbidapen bidezkoa da eta hilaren 16tik aurrera Kultur Etxean jaso daiteke.

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza
azaroak 13

Erromoko kultur etxea
urriak 19

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

**GALEA
ASESORES, S.L.**

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA

% 94 460 95 12

Fax: 94 491 11 31

[liburuak]


Linazasororen azken lana

Bestiariora. Hilerrikoak liburuagaz gazteei begirako sail berria aurkeztu du **Elkarrek**

Pasa den hil amaieran aurkeztu zuen Karlos Linazasorok (Tolosa, 1962) *Bestiariora. Hilerrikoak* lan berria, aurkezpen ekitaldian azaldu zutenaren arabera, "liburua ez da guztiz eleberria, ezta antzerki edo aforismo bilduma ere; hainbat genero nahasten dituen jolasa da". Linazasorok, berak aitortu duen legez, hain gogoko daukan jolasa titulutik bertatik antzematen da. Euskal Filologian lizentziatuak liburutegi batean egiten du behar eta denboraldi bateko lanutzaldia hartu zuen liburu idazteko. Eta tolosarraren azkenengo lan horretako K. protagonista ere liburuzaina da, hark ere eszedentzia hartuko du nobela autobiografikoa idazteko asmoz. Idazleak azaldu

«Heriotzak eragindako saminari aurre egiteko umorea darabil egileak»

duenez, "K. nire alter egoa izan daiteke; sarri baliatzen naiz alter egoaz nire buruaz barre egiteko, jakina, tarteka besteez ere egiten dut irri". Bere estiloan ironia, sarkasmoa eta umore beltza aipagarriak dira eta *Bestiariora. Hilerrikoak*-en ere ez dira falta, heriotzak eragindako saminari aurre egiteko poesia eta umore beltza darabiltzalako Linazasorok. Horrez gainera, "gizakiok ko-



Karlos Linazasoro

munikatzeko dugun ezintasuna ere azaltzen da liburuan; K. autista samarra da, kostatu egiten zaio sentimenduak adieraztea, niri bezalaxe", dio *Bota gorriak* ipuinagatik Euskadi Saria jaso zuen egileak.

Ateko banda, sail berria

Bestiariora. Hilerrikoak liburuagaz eman dio hasiera Elkarrek gazteei begirako "Ateko Banda" sail berriari. Argitaletxetik jakinarazi legez, bildumak Sarrionandiaren poema baitetik hartzen du izena; "testu arin eta freskoak" batu gura dituzte eta "Linazasororen lana oso egokia da ezaugarriok dituelako". m

liburuak



Axenari
Jules Renard
Elkar

Familia ez du Axenari mutikoa maite eta giro latz horretan behar duen maitasuna bereganatzen saiatuko da. Horretan dagoela helduen giroko garraztasunak dastatuko ditu. Ama maitekorraren eta aingeruzko umearren mitoak hankaz gora jarriko ditu idazleak.



Errege hilobian
Aitor Arana
Elea

Antso III.ak 2.000 urte eman ditu lo eta gaurko Euskal Herri nahasi eta erdaldunaren esnatu da. ETAK erakundeko buruzagitzan sartu gura du, lurralde guztiak berriz batu ditzan. Aranak intrigazko nobela egin du pertsonaia historikoa oinarri hartuta.

[kirola]

Tontorren maitale sutsuak

Datorren urterako **zortzi milakoa** dute buruan, traba handiena baliabide ekonomikoak lortzea da



Ander eta Iban Alpamayo Chicoko (5.400 m) gailurrean, Bolivian

Mendiarekiko zaletasunak batu zituen behinola Gorka Mendez, Aitor Abendaño, Mikel Pascual, Ander Perez de Arilucea eta Iban Rouco, Getxoko eta Sopolako mendigoizaleak. 10 urte daroe hormak igotzen, median gora oinez eta eskalatu. Picos de Europa, Pirinioak, Alpeak... izan ziren lehenengotarikoa, "baina gorputzak gehiago" eskatzen zien eta gogoak gailur gorenagoen puntetik ikus daitekeena igar-tzea. Eta apurka prestatzen joanda, gorpultzaldi indartsuagoa osatuz, oinak eta buruak esperientziar jantziz joan ziren. Bidea apurka jorratu dutela azaldu digute taldearen izenean jardun duten Ander eta Ibanek, eta poliki asmo handiagoko mendi demei, ekinaren ekinez, aurre egiten dietela. Eta argi adierazi dute taldeak erabiltzen duen estiloa: "Mendi irteera eta erronketan ez dugu zamaketaririk errotan, eroan beharrekoa gure lepo gainean daroagu, ez daroagu sukaldaririk, gidaririk ezta bestelakorik ere; geure indar, gogo eta ekimenez lortu behar dugula uste dugulako". Bestalde, mendiaren inguruan dakituen guztia, eta gailur garaien batera abiatu baino lehen erabili beharreko teknika, estiloa eta

bestelako alde guztiak ere eurek prestatzen dituztela diote, "aldizkarietan, sarean, liburu eta abarretan bilatuz, mendian ibiltzen ere horrela ikasi dugu-eta". 2003an Hego Amerikako 3 tontor altuenetakoak egiteko egitasmoa garatu zuten, "diru laguntza lortzen ahalegindu ginen, baina ate guztiak itxi zizkiguten; halere, aurrea egin genuen eta hirutik 2 gailur igo genituen Ojos de Salao

«Aconcagua, Ojos de Salao, Alpamayo Chico, Cerro Condoriri, Huayna Potosi... mendigailurretan egon dira»

(6.890m) eta Aconcagua (6.960m)". Iaz Bolivia aldean ibili ziren Alpamayo Chico (5.400m), Cerro Condoriri (5.600m) eta Huayna Potosi eta Ilimani (6000m) igo zituzten. Azken urteotan talde indartsua sortu dutela azaldu dute, "guzteak gara, gorpultzaldi onean gaude, gogotsu, eta geure buruak ere prest ikusten ditugu erronka handi bati aurre egiteko". Datorren urterako zortzimilako bat dute gogoan, "prest gaudela uste dugu, dirulaguntza barik gaitzagoa izango da, baina ia norbaitek hau entzuten duen eta..." m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL MODA



350 m²


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacorfris, s.l.



& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Aitzol eta lokine Iturriagagoitia > *Iturriaga Laukoteko* musikariak

“Musikarako talentua eta ekimenak daude hemen; kultura gosea dago”



Iokine Iturriagagoitia, Miguel Angel Lucas, Rebekka Riedel eta Aitzol Iturriagagoitia

Aitzol eta lokine Iturriagagoitia getxotzar biolin-jotzaileek *Iturriaga Laukotea* osatzen dute **Rebekka Riedel** alemaniarraz (biolontxelo) eta **Miguel Angel Lucas** espainiarraz (biola) batera. **Neba-arreba** biek **Leipzig**en, Alemanian, sortu zuten taldea, eta hantxe daukate bizilekua aspalditxotik. Orain gutxi **Leioan** eskaini zuten kontzertua, eta guk ez genuen aukera galdu eurakaz elkartu eta berrikeretan jarduteko.

—Bistan da laukotearen izena zuen abizenetik hartu duzuela...

—Bai, “iturri” berbagatik aukeratu genuen batez ere. Inspirazio iturria, eta abar. Eta laukotearen erdia Euskal Herrikoa dela adierazi gura genuelako ere bai.

—Alemanian ezagutu zenuten laurak elkar...

—Madrilgo Reina Sofian ibili eta gero Alemaniara joan ginen ikastera. Eta Alemanian erabaki genuen laukote serio bat osatzea, irauteko modukoa. Badira hamaika urte

Leipzig bizi gara.

—Baina ez zineten Leipzigera joan betiko **gelditzeko asmoz, ezta?**

—Hasiera batean ez. Ikastera joan ginen, bost urtez, eta bizitzaren gorabeherak direla eta hantxe gelditu ginen. Huraxe da orain gure egoitza, bai lanbide aldetik bai familiar dagokionez ere. Bestalde, Europa erdiko bi zi-maila oso altua da, eta Leipzig oso ondo dago bizitzeko. Hala ere, jakina, hona gatzaren bakoitzean egundoko herrimina edukitzen dugu.

—Eta zergatik Leipzigera eta ez beste inora? **Etiket urtetearen edo...?**

—Bagengozan etiket kanpo, hamabost urte geneuzkala joan ginen-eta Madriler. Askoz hurbilago, baina hamabost urte daukazula nahiko urrun ere bai. Ia ez ginen hona etortzen eta, azkenean, norbera ohitu egiten da etiket kanpo egotera. Gainera, titulua gura genuen. Reina Sofia oso ondo dago, baina sasoi hartan ez zuen titulaziorik ematen. Beraz, musika-tradizio sendodun herrialde batera joatea erabaki genuen; eta Alemania da herrialderik musikazaleena. Alemania osotik bilatu eta gero, Leipzig aukeratu genuen.

«**Titulua gura genuen, eta musika-tradizio sendodun herrialde batera joan ginen**»

—Adorea behar da holan joateko!

—Gustuko ditugu erronkak. Ez genekien barbarik ere alemanez, eta ikasketak alemanez egin genituen oso-osorik. Ez zen erraza izan, ez!

—Baina merezi izan du, antza: ospe handia ei daukazue leku guztietan. Beharbada hemen gutxien; badakigu zelan dagozan artezesenak inguru honetan!

—Guk eboluzio polita igartzen dugu. Kontzertu-areto berriak egiten dira, areto onak. Eta jotzen dugunean beteta ikusten ditugu. Interesa igartzen da, kultura gosea. Egia da ez dagoela herrialde germaniarretan adinako tradizioa, baina hemen talentua dago musikarako, eta ekimenak ere bai.

—Orduan, orain edukiko bazenituzte **hamabost urte, hemen lotuko zinatekete?**

—Hara, atzerrira joatea ere oso ederra da: pentsamoldea aldarazten du, ikuspegia zabaldu... Ezin dizugu esan hemen geratuko ginatekeen ala ez. m

Esakere > “Aginduten daunek aginduten dau”

Txikerra nahi handi ixen, aginduten daunek aginduten dau... Horren ganera badakiu zeozer euskaldunek, gizon txiker eta motz bat baiño geihauk erabili gaituz-eta, auren soiñure yantzan. Baia beste alde batetik, gure Euskal Herri honerain hain txikerra dalakon tokaten dako hainbet estutasun pasate. Helduko ete daku guri sagutxu domadora ixeteko sasoi, helduko ete gara iñoz beste esakera ezetuko batek diñona ikusten: “Txikerrak handi bentzi leidi, asmoz eta yakitez”.

Esakeratxu hau I. Gilisastin “Berba lapikokoa” liburu ederratik atara dogu.

Gureberbakere84

Testua: **Xabi Bilbao**

GURE AZENTU (XII)

Azentun kontuten ikusten gabiltzez zelan gure berbakera berba askok azentu koixten dauden gramatikako arrazoi batzukeitik: berba alkartuk direzelako, mailleguk direzelako, atzizki azentudun bet daukelako, edo kasu batzuten, esangure bereziko berbak direzelako (ikus Berbakere 20). Berbakere 69n akaba in gendun ikusten zelan alkarturiko berba gahienatan azentu agertuten dan lehelengo osagaiko azkeneko silaban, eta honetan hasi egingo gara ikusten zelan berbak azentudunek bihortuten direzen atzizki azentudun batzukez alkartuten direzenen. Beste modu baten esateko, **atzizki batzuk azentu daraude edo azentu iminten dautse aurekaz alkartuten dan berbari**. Hemen doaz adibide batzuk:

<i>ama + -ntzako</i>	-> <i>amántzako</i>
<i>lotsa + -ti</i>	-> <i>lotsáti</i>
<i>imiñi + -ko</i>	-> <i>imiñiko</i>

Honek adibide apropos eleju doguz baxotxa mota bateko: lehelengon deklinabideko atzizki bet (-ntzako -nointzako-) deku izen bateri alkartute, bigarrenan eratorpen atzizki bet (-ti) adjektibo bategaz, eta hirugarrenan aditz partizipio bat gero aldiko -ko atzizkiez batera alkartute. Adibidek erakusten dauden lez, atzizki azentudunek hiru motatan banatu leitez: deklinabidekok, atzizkibide edo eratorpenekok, eta aditz partizipioak doazen atzizkik. Gaur azkeneko mota honetakok ikusten hasiko gara.

Berbakere 28n ikusi gendun lez, aditz gehien-gehienak azentubakok direz gure euskeran forma laburren agertuten direzenen, hau da, ekintze amaituko (bukatuko) forman erabilten direzenen (-i, -tu edo Ø atzizkikez): *emon, esan, yon; imiñi, etorri, ibilli; galdu, sartu, apurtu,...* Badauz azentudun batzuk bere, baia askoz gutxiago direz eta gahienak *ena-* aurizki daraude edo mailleguk direz: *erákutsi, erábilli, érontsi,...*; *gobérna, auménna, amárna,...*

Baia aditz partizipio alkartuten dakozen beste atzizkikez aditz duztik hartzen daude azentu. Zeintzuk direz gure euskeran horrek atzizkik? Hiru direzela esan leite: *-te* (eta *-ten*), *-ko*, *-ta* eta *-keran*. Eta gaurkoz hemen itxiko dogu gauze. Laster arten!

I

Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoia

Txipiroiak

onddo beltzekin

Abrako txipiroia estimatua bezain bakana da. Hala ere, lortzek eskatzen duen ahaleginak merezi duelakoan nago. Hasteko, txipiroi preziatu hauek lortu behar dira, eta gero ondo garbitu. Irinetik pasatu ostean oliba oliotan salteatu. Nik berakatzarekin batera egiten ditut, hasieratik zapore hori har dezaten. Txipiroi guztiak salteatu ondorengo olio berean, julianan zatitutako kipula egiten jarri su ahulean. Eginda dagoenean, aurretik salteatutako txipiroiak eta koñak txorrotada bat (sukaldariaren gustura) eta arrain salda apur bat gehitu. Onddo beltzak aparte salteatu behar dira, eta eginda daudenean bestearekin nahastu. Ez zaizue damutuko! m

osagaiak (bi lagunentzat)

800 gramo Abrako txipiroi • 400 gramo onddo beltz • biru kipula koñaka • oliba olio • irina • gatza • arrain salda




itsaso arana / jolastokikoa

Sauvignon

blanc

Bordelen eta Loira aranean gehien lantzen den mahatsa da *sauvignon blanc*. Han du-eta jatorria mahats zuri honek. Kalitate oso handikoa da, fruitu txikiak ematen dituena eta ontzen direnean kolore urreztatua hartzen dutenak. Asko zabaldu da bere laborea munduan zehar, izan ere, oso ondo egokitzen da klima desberdinetara. Argentinan, Txilen, Uruguain, Kaliforniako kostaldeko aranean edota Italian arrunta da *sauvignon blanc*. Hala ere, munduan mahats honekin Zeelanda Berrian egindako ardaoak dira gehien estimatzen direnak. Estatu espaniarrean, Rueda jatorri izendapenak hartzen duen lur eremuan asko landatu da, eta neurri txikiagoan, Katalunian.

Mahats aromatikoa da, indartsua, gogora fruitu tropikalak ekartzen dituena, lore ikutu arin bat ere badaukana. Oso atsegina da eta ematen dituen ardaoak oso erraz edaten dira. m



(Basagoiti 57) taberna

Algortako txoko lasaia familia artean



Argazkian, Alicia eta Patricia ahiztak

Betidanik ostalaritzaren munduan behar egin izan dute Alicia eta Patricia Gomez ahiztek. Londresen hasi ziren eta itzuli zirenean euren negozio propioa irekiko zutela argi eduki zuten hasieratik. Beraz, aukera suertatu zitzaieanean ez zuten birritan pentsatu eta 2005eko azaroan (Basagoiti 57) taberna ireki zuten. “Seme alabak ditugu eta gure ordutegiak finkatu gura genituen, familia arteko kutsua zuen zerbait sortu. Hori izan da gure taberna irekitzeko arrazoi nagusia”, azaldu du Patricia. Ordutegia 9:00etatik 15:30era eta 17:30etik 22:30era da.

“Jendea egiten diogun harrera oso beroa da. Familia asko dator hemendik, gurasoak umeakaz. Halere, asteburuetan jende gaztea ere hurbiltzen da”, dio Aliciak eta lokala

plaza batean egoteak laguntzen duela azpimarratu.

Euren eskaintzen artean, Kantabriako “macho” sobaoak eta Cigales ardaoak daude. Izan ere, ahizta biak Solares alboan dagoen Hoznayo herrikoak dira jatorriz. “Orain dela bederatzi bat urte etorri ginen Algortara bizitzeko eta oso gustura gaude hemen”, onartzen du Patricia.

Beste gauza askoren artean, erakusketak ere antolatu gura dituzte tabernan. “Hegoamerikatik ekarritako haziez lagun batzuek egindako lepokoak erakutsiko ditugu laster, originala iruditzen zaigu-eta”, iragarri du Patricia. m

(BASAGOITI 57) Basagoiti, 57 - Algorta

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi** ALGORTA
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokoma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina ALGORTA
94 430 76 96

gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ITXASOANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T: 94 430 69 42 / ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak"

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Zuen urtemugan ezusteko bat eman gura diozu bikotekideari. Hamaika ideia dituzu baina ez dakizu zein aurrera eroan. Laguntza behar duzu? Lagunari galdetu ia egokiena zein den. Dena ondo prestatu gero!</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Lehenbiziko aldiz ikusi zenuenetik txora txora eginda zabiz beragaz. Ez dakizu zer den, baina tabernako atetik sartu bezain laster maitemindu zinen. Ezinezkoa ematen badu ere, batzuetan gertatzen da...Sarritan esango nuke nik...</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Ilargiaren arabera aldarteak daukazu. Korranteak baino konplikatuagoa zara! Ilbetea dagoenean, zure lozorrotik irten eta inguruko guztiak aztoratzen dituzu; gau ilunean, ordea, igarri bere ez zaizu egiten. Horrela daude danak egutegira begira!</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Tripontzi hutsa eginda zaude. Edozer jaten duzu eta ez duzu kirolrik egiten. Ipurdia aulkian itsatsita duzula ematen du. Ogitan ere autoan joaten zara! Ez al zara konturatzen zure egoera larria dela?</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Musu bat eman zizun lehenbiziko aldian gogoratzen duzu? Makina bat urte eta gauza pasa dira ordutik, baina bion artean oraindik maitasuna dagoela nabari da. Zeozer berezia da zuen artekoa, ez galdu.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Etxean gehiago lagundu beharko zenuke. Ez al da zoragarria etxeokoz zuzaz pozik egotea? Horrela, gainera, gauza gehiago egingo dituzue alkarrengaz eta zure ingurukoiei buruz ez zenekien hainbat gauza deskubrituko dituzue.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Onartu, behingoz, zure soldatak ez duela ematen darozun bizitza maila ordaintzeko. Ireki begiak eta aurreztu apurtxu bat. Aberatsak gutxiengo dira eta jende jatorria aurkituko duzu leku guztietan. Dirua ez da garrantzitsuen...</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Amuma eta aitxiterengana gehiago joan behar duzu. Izugarriko ilusioa egiten die zure konpainia eta euren egunerokotasunean pizgarria da "ilobatxuagaz" berba egitea. Haiek irribarretsu ikustea pena merezi du, ez al da horrela?</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Oporrak behar dituzula? Berandu zabilta, zer ari zara itxaroten ba? Uda ez zen atsedena hartzeko garai aproposa izan? Aldrebesatua zara gero! Nora joango zara? Atzerrira agian? Planik baduzu? Nogaz bidaiatuko duzu?</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Bera animatzen arduratu zara, mila bider deitu diozu telefonoz, baina berak ez duela irten gura. Gainera, bere bizitza egiten uzten ez diozula aurpegiatu eta haserretu egin da. Ez larritu, pasatuko zaio. Bakoitzak berera.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Ez da batere erosoa agurtu dizun horregaz ez gogoratzea. Berak oso ondo ezagutzen zaituela ematen du, baina zuk idearik ere ez. Gatxa da egoera horretatik ondo irtetea, ezta? Hoberena plantak ez gitea...</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Egiten duzun lanak ez duela ezertarako balio uste duzu. Ez duzu emaitzarik ikusten eta larrituta zaude. Lorpenak epe luzean atzemango zirela esan zizuten hasieratik. Hori gertatzen denean, gusturago hartuko dituzu fruituak.</p>

mungia
oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA




KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Artamendatua. 2. Desafio hitza. (Zah.) Zakur. Estrontzioaren ikurra. 3. Itsasertzeko dorre argi emailea. 4. Nauka. Bizkaiko ibaia. Letra grekoa. 5. Pluralean, deklinabideko kasua. 6. Mehatxuka. (Errep.) Gorotza. 7. Emakume izena. Berrogeita hamar. Kilobyte. Nitrogenoaren ikurra. 8. Lanbro euri. Nafarroako udalerria, erdaraz Montreal deitua. 9. Bokala. Mend., elkarte. 10. Txori mota. Epeak.

Goitik behera

1. Gainaldeak. Buhameen euskaraz, presondegia. Bokala. 3. Mahomaren jarraitzaileak. 4. Euskal erakunde armatua. A bikoitza. Glukosaren hasiera. 5. Kontsonantea. Itxura ederrekoak. 6. Hiri, doa. Norat atzizkia. 7. Arrain arrautzak. Egiptoko jainkoa. 8. Kontsonantea. Kontsonantea. Bokala. Eten-gabe. 9. Ipar., lantegiak, fabrikak. Bizkaiko ibaia. 10. Pi. Hego Amerikako herri bateko kidea.

Soluzioak

K	V	I	V	T	U	K	U	K	
V	E	T	R	V	K	L	V	V	
O	L	E	R	A	G	N	V	L	
N	B	K	L	V	N	V			
V	K	V	K	I	V	M	E	Z	
K	O	K	I	T	V	B	L	V	
U	N	V	K	O	U	V	N		
V	I	G	H	V	S	V	S	I	
H	S	H	O	T	N	X	V		
U	A	T	U	A	G	O	M	E	N



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Gipuzkoako semea
- Bartzelonan lanean ibili zen luzaroan
- Donostian dabil orain

> Aurrekoaren erantzuna: Igor Anton

> Irabazlea: **Idoia Aloria Sanchez ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren hiru bilabeteko harpidetza doan



Freexkue liburua

www.argia.com



ALGORTAKO LASAI TABERNAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Algorta futbol taldea, 1944-45

Algorta C.D. Getxo futbol taldearen talde amateurra zen baina partida gutxi batzuk jokatu zituen, ez ofizialak beti. Izan ere, denboraldi bakar bat (1944-45) baino ez zuen iraun taldeak. Algorta izena ipini zioten jokalariek guztiak algortarrak zirelako. Taldeko bost jokalariek (Txutxi, Langarita, Valen, Juan Ramon eta Juanero) hurrengo denboraldian, 1945-46an, C.D. Getxon jokatu zuten. Denboraldi hartan erregionaleko lehenengo mailan txapeldunak izan ziren eta honen ondorioz hirugarren mailan jokatu zuen Getxok 1946-47 denboraldian. m

Zutunik: Santi Uranga (GB), Jaime Martinez (GB), Txutxi Larrauri (GB), Julian Aspiroz (GB), Rikardo Agirre Txakolea (GB), Edu Pereiro.

Makurturik: Jose Luis Bilbao Langarita, Valen Pomposo (GB), Juan Ramon Iguar, Juan Basterretxea Juanero (GB), Pedro Gaztañaga.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

MAIDER EGUES > kazetaria

“Etxera iritsi eta janaria prest edukitzea da nire ametssetako bat”

Testua: **Oiane Moran**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Ameslaria eta burugogorra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Altxorraren uhartea.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez dut pertsonaia historikorik ezagutzeko aukerarik izan, eta inor miresteke, benetan ezagutu behar da.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Ez naiz inoiz garaiz heltzen.

Aitor dezakezun bizio bat.

Txokolatea.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Asko, adibidez, Jordania.

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?

Gezurra.

Zein da zure ametssetako bat?

Egunero etxera iritsi eta janaria prest edukitzea.

Zein da ikusi duzun azken filma?

Alatriste.

Eta irakurri duzun azken liburua ?

Vida de Pi.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Udala auzoa, Arrasaten.

Hondartza ala mendia?

Biak.

Goiza ala gaua?

Gaua. m

ETB

LABURREAN— Mainerrek kazetaritza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta ordutik ez da geldirik egon. 1993tik 1997ra arte Arrasate Telebistan egin zuen behar. Aldi berean, Arrasate Press astekarlan ere jardun zuen. 1994an, *Frontón* (TVE2) saioko kolaboratzailea izan zen. Ondoren, 1997an, *Kili Kolo* saioa aurkeztu zuen ETB-1en, baina *Jaiak* saioa izan zen Euskal Herrian ezagun bihurtu zuena. *Chiloé*-n ere ikusi izan dugu mundu osoan zehar bidaiatzen. Gaur egun, berriz, *Teknopolis* saioan lan egiten du zientziaren inguruko erreportajeak egiten.



ARGIA egutegia 2007 salgai dagoeneko

Azalean

- ▶ eguzkia eta ilargiari dagozkionak
- ▶ santutegia
- ▶ gizon-emakumezkoen euskal izenak
- ▶ itsasgora eta itsasbeheren inguruko informazioa

Atzealdean

- ▶ egunarekin lotutako gertaera bitxi eta interesgarriak



Egutegia: 7,50 € · Taula: 50 € + egutegia opari

eskaerak

© 943 371 545 · denda@argia.com · www.argia.com/denda

ARGIA

www.argia.com